

Goienkaria

ASTELEHENEKO

2010eko martxoaren 8a > Astelehena > VI. urtea > 268. zenbakia > 1,10 euro

www.goiena.net TOKIKOM

"Erromatarren garaian sortu zen hemengo jauntxo edo lurjabe handien figura"

Beñi Agirre
Nabarraldeko kidea > 08



G2a Antzuolako Txistulariak, sasoi onean > 29

INGURUMENA Landare-olio zerbitzuak urte bukaera arte jarraituko du > 02

ARETXABALETA Kirol etxe aurreko berdegunerako sei proposamen aztertzen > 11

FUTBOLA Ohorezko mailako hiru taldeek garaipena, etxetik kanpo > 22

JENDARTEA > EMAKUMEAREN EGUNA

Berdintasunaren alde, ekitaldi parte-hartzaileak egin dituzte

FESTA GIROAN Jai giroan eta umorearekin egin zituzten zapatuan Arrasaten Takarraran; eta atzo Elgetan korrikaldia

AZOKA Zapatuan, Arrasaten, lasterketaz gain, emakumeen azoka eta mural erraldoia ere egin zituzten

ALDARRIKAPENA Gaur, astelehena, manifestazioa egingo dute Arrasaten 19:00etan, Seber Altubetik > 04

ARAMAIO > AZPIEGITURAK

Gasteizera jo dute protestan

Bideari konponbidea emateko kontzentrazioa egin zuten Aldundian aramaioarrek > 04

Maitasun erakustaldia, kolpe latzari aurre egiten saiatzeko

Mendia eta Arrasateko gazte-
txea ziren joan den domekan Udala inguruan hil zen Joseba Iglesias gazte arrasatearraren leku kuttunenak, eta bertan egin dituzte asteburuan haren oroimenezko ekitaldiak.

Arrasatear askorendako kolpe latza izan da Iglesiasen bat-bateko heriotza; eta hainbat herritar eta elkarte batu dira merezitako agurra egiteko. Hala, zapatuan mendi ibilaldia, lore eskaintza, herri bazkaria, bideo emanaldia eta talde argazkia (irudian) egin zituzten. > 12



LAGUN ASKO Arrasto handia utzi du Iglesiasen herrian eta haren aldeko argazkia egin zuten zapatuan bere omenezko muralaren ondoan.

JULEN ELORTZA

AURKIBIDEA

Debagoiena > 02-06
Auzoak > 07
Elkarrizketa > 08
Iritzia > 10
Herriak > 11-20
Kirola > 21-27
Kultura > 29-31
Saikatuak > 34-35
Telebista-irratia > 37
Berri-zakua > 38-39
Azkena > 40

POLITIKA > ETAREN BIKTIMAK

Gogoan izan zuten Isaias Carrasco

Bi urte bete dira ETak PSE-EEko zinegotzi ohi Isaias Carrasco erail zuenetik. Atzo, domeka, omenaldia egin zioten Arrasaten. Familiakoak, Patxi Lopez lehendakaria, PSE-EEko ordezkari asko eta herritarrak izan ziren. > 05



Sandra (hizketan) eta Ainara alabak, alargunarekin eta lehendakariarekin.

J.A.

Goiena kluba



Umeentzako liburuak opari. Nahi?

Zoaz 7. orrialdera

INGURUMENA > DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

Puntu Berde Mugikorra ikusiko dugu gurean urte bukaera arte

LANDARE-OLIO ERABILIA Zerbitzuaren kontratua abendura arte luzatu du Mankomunitateak; landare-olio erabilien edukiontzien emaitzak aztertuko ditu

ESKORIATZAKO PROBA PILOTUA Urte amaieran Eskoriatzan proba moduan jarritako lau edukiontzietan 920 litro olio batu dira; bitan jaso dituzte

DIRU SARRERAK Aparailu elektrikoak eta pilen hondakinak jasotzeko zerbitzua eskaintzeagatik 27.428 euro aurreztuko ditu urtero, sinatutako hitzarmenen bidez

MIRIAN BITERI > BERGARA

Puntu Berde Mugikorra bailara-ko herrietan ikusten jarraituko dugu datozen hilabeteotan. Joan den otsailaren 17an, Debagoieneko Mankomunitateak egindako Gobernu batzordean horren gaineko kontratua abendura arte luzatzea onartu zuten. Bitartean, Mankomunitateak landare-olio erabilia biltzeko Eskoriatzan martxan jarritako esperientzia pilotuaren eta Arrasaten dauden edukiontzien emaitzak aztertuko ditu; eta, horien arabera, landare-olio erabilia biltzeko behin betiko sistema aukeratu du.

Mankomunitateko Ingurumen Zerbitzuko buru Mikel Jaioen esanetan: "Horiekin gero erabakia hartuko dugu; sistema bat aukeratu edo biekin jarraitu -Puntu Berde Mugikorra eta edukiontzia-. Horregatik luzatu dugu Puntu Berdearen kontratua urtea bukaera arte, denbora izan dezagun eta dauzkagun aukerak azter ditzagun".

Eskoriatzan bitan jaso dituzte herrian banatuta dauden lau edukiontzietako olio erabilia. Jaiok eskaintako datuen arabera, bi hilabetean 920 litro jaso dituzte. Teknikariak, dena dela, zuhur jokatu beharra dagoela esan du: "Bi hilabete oso gutxi dira emaitzak aztertzen hasteko". Gogorarazi du, horren harira, proba pilotu edo aitzindariak sei hilabete iraungo duela.

Esan bezala, lau edukiontzia jarri dituzte han: Santa Ana kalean -autoeskola parean-, San Juan auzoan -fruta-dendaren aurrean-, Intxaurtxuetan -San Pedro kaleko bidegurutzean- eta Aranburuzabalán -Ezkurra enpresa parean-; bakoitzak 900 litro olio hartzeko edukiera du. Edukiontzia horietara erabilitako landare-olioa botatzeko etxean dugun edozein ontzi erabili ahal da, plastikozkoa zein beirazkoa.

ARRASATEN, 45.331 LITRO

Arrasateko edukiontziek, berriz, ontzi berezia ematen diote erabiltzaileari. 2007ko apirillean jarri zituen proba moduan Udalak. Orduan, zazpi edukiontzia jarri zituzten herriko honako tokietan: Inazio Zuloaga kalean, Maiatzaren Bata plazan, Zaldibarren, Udala plazan, San Antolinen, Eroskin eta Obenerrekan. Rafa Ugartek, Arrasateko Ingurumen Saileko teknikari-buruak, azaldu digu ordutik iazko abendura arte



Arrasaten otsailaren 25ean hasi ziren edukiontzia berriak jartzen; irudian, Eko3R enpresak Udala plazan jarritakoa.

MIRIAN BITERI



Eskoriatzan olio batzeko lau edukiontzia daude; horietako bat Santa Ana kalean dago.

M.B.

45.331 litro jaso zirela: hain justu ere, 2007an, 11.558 litro; 2008an, 16.788; eta 2009an, 16.985 litro.

Egunotan edukiontzia berriak estreinatu dituzte; 11 halako ekarri ditu Eko3R enpresak, orain arte baino lau gehiago. Obenerrekan zegoena kendu egin du eta Legargain kalean jarri. Gainontzeko laurak Bedoñan, Udalan, Garagartzan eta Erguinen jarri ditu. Edukiontzia berriendako pote berriak ere ekarri ditu.

Joan den azaroan, Arrasateko Udalak Fagorri olio edukiontzien patente eskubidea saltzea onartu zuen, eta, horren harira, hitzarmena sinatu zuten alde biek. Fagorrek, edukiontzia horiek komertzializatzeko Eko3R izeneko enpresaren bidez, edukiontzia berriak jartzeko konpromisoa hartu zuen.

APARAILU ELEKTRIKOAK ETA PILAK

Olio erabiliaren gainean jarduteaz gain, Mankomunitateak egindako batzar hartan beste hainbat gai ere landu zituzten: tartean, aparailu elektrikoak eta pila hondakinak kudeatzeko hitzarmenak sinatzea adostu

zuten. Mikel Jaiok azaldu digu orain arte Mankomunitateak pilak nahiz aparailu elektrikoak jasotzeko zerbitzua eman duela garbiguneetan; eta pilen kasuan, baita Puntu Berde Mugikorrean eta herrietako hainbat dendatan ere. Baina, orain, legez, pilen eta

aparailu elektrikoak ekoizleen ardura da hondakin horien kudeaketa eta kostua ordaintzea, SIG moduan ezagutzen diren erakundeen bidez. Debagoienean, orain arte, Mankomunitatea arduratu da horretaz guztiorretaz eta orain, erakunde horiekin hitzarmena sinatu du.

Jaioren arabera, "Mankomunitateak zerbitzu hori ematen jarraituko du, baina guk jasotzen dugun hondakinaren garraioa eta haren tratamendua bere gain hartzen du SIGek: Eta, horrez gain, guk egiten dugunez eurei dagokien lana, diru sarrera jasoko dugu hemendik aurrera". Hitzarmenek eragingo dute urteko 27.428,47 euroko aurrezpena Mankomunitatearendako; 19.318,8 euro aparailu elektrikoengatik eta gainontzeko 8.109,67 euroak pilengatik.

ESANAK

"SIGekin sinatutako hitzarmenen bidez, aparailu elektrikoak eta pilen hondakinak jasotzeagatik diru sarrera jasoko dugu hemendik aurrera"

Mikel Jaio > Ingurumen teknikaria

DATUA

920
LITRO

Bi hilabete pasa dira dagoeneko Debagoieneko Mankomunitateak Eskoriatzan proba pilotua martxan jarri zuenetik. Epe horretan, herrian dauden lau edukiontzietan 920 litro jaso dira.

Kutxa Inbertsio Irtenbideak



6 Up Gordailu Berria. Inbertsio ezin tentagarriagoa.

6 Up Gordailu berria errentagarritasunik gozoena lortzeko osagai-konbinazio ezin hobez prestatua baitago. Zatoz **kutxara** eta dasta ezazu aho-zapore ezin gozoagoa utziko dizun inbertsio hau.

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 **kutxa**

JENDARTEA > EMAKUMEAREN EGUNA

Berdintasunaren alde, ekitaldi parte-hartzaileak

Festa giroan egin ziren zapatuko Takarraran lasterketa eta atzoko Elgetako korrikaldia

Gaur manifestazioa egingo dute Arrasaten, 19:00etan Seber Altubetik abiatuta

TXOMIN MADINA > ARRASATE

Gaur egingo da mundu guztian Emakumearen Nazioarteko Eguna, baina asteburuan zehar hainbat eta hainbat izan dira egun honen harira antolatutako ekitaldiak.

Arrasaten, zapatu goizean izan ziren ekitaldi gehienak *Prest gaude!* lelopean. Festa giroa izan zen nagusi, eta herritar ugari parte hartu zuten. Goizeko hamarretan azoka zabaldu zuten Seber Altube plazan. Bertan, ohiko baserriko postuez gain, artisauak ere egon ziren: jostailuak, arro-

pak, bitxiak... Ekin Emakumeak elkarrekin, urtero legez, hamaiketako egiteko postua jarri zuen eta goiz guztia eman zuten taloak eta gainerakoak egin eta saltzen. Elkarteko kideez gain, hainbat emakume etorkin ibili ziren laguntzen.

TAKARRARAN

Eguerdia hurbiltzearekin batera, Portaloian hasi zen batzen jendea, Takarraran lasterketaren bigarren edizioa gertutik jarraitzeko. Irteera puntuan adin ezberdinetako 55 emakume batu ziren.

2.800 metroko ibilbidea zuten aurretik herriko kaleetan barna eta badirudi eguzki epelak ere parte hartu nahi izan zuela.

Antolatzaileek esana zuten garaipena baino garrantzitsua zela parte-hartzea, eta hori nabarmena izan zen ibilbidean zehar: lasterkari askok taldeka egin zuten korrika, umore onean eta ikusleen txalo zaparradak eskertuaz. Denetan azkarrena Maria Jesus Velasco arrasatera izan zen. Bere atzetik sartu ziren Ainhoa Eraña bigarren eta Mireia Flores hirugarren. Hiru ere lila koloreko paperean bildutako lore sorta bat jaso zuten; baita azkenengo heldu zirenek eta zozketaz aukeratutako beste korrikalari batzuek ere.

EMAKUMEEN MUNDUKO MARTXA

Arrasaten antolatutako ekitaldi sorta baina, ez zen hor bukatu: herriko feministek antolatuta mural bat margotu zuten Biteri plazan. Maite Urzain, antolatzaileetako batek azaldu zuenez, mural hau indibiduala eta kolektiboa izatea gura izan zuten, norberaren ekarpenetatik osotasun bat egiteko. Muralaren ibilbidea baina, ez zen zapatuan bukatu. "Beste hainbat herritan ere euren muralak margotu dituzte, eta asmoa da gero Euskal Herriko denak elkartu eta oihal handi bat egitea" azaldu zuen Urzainek.



Adin guztietako jendea elkartu zen murala margotzeko.

JOSETXO ARANTZABAL



Elgetan, herriko hamaika taldek eraman zuten korrikaldiko testigua.

J.A.

ESANAK

"Emakumeok mundu mailan ekarpen bateratu bat egiteko eta adostasunera heltzeko gai garela erakutsi gura dugu"

Maite Urzain > Arrasateko feminista

"Korrikaldiarekin adierazi gura izan dugu ezberdintasunek jarraitzen dutela, eta denok mugitu behar dugula."

Edure Alberdi > Elgetako zinegotzia



ETOR ARREGI

Gasteizera eraman zuten bidearen gaineko protesta aramaiorrek

Zapatuan Aramaioko 125 lagunek kontzentrazioa egin zuten Gasteizen, Arabako Aldundiaren sarreran, AHTko lanek eragindako bide mozketak salatu eta konponbidea eskatzeko. Horretarako, *Aramaio S.O.S.* eta *Zabaldu bidea* leloa zuten pankartak, eta lanen argazkiekin osatutako panelak eraman zituzten. Eta, bide batez, komunikabideetan Adif-ek esandakoari (lurjausia ez dutela lanek eragin), erantzun zioten gezurra dela esanez. Martitzeno, kultura etxean batzen dira, 19:00etan.

OSASUNA > PROBA

Oñatin egingo dute koloneko minbiziaren gaineko plana

Programa horren bidez gaixotasuna goiz detektatu nahi du Osakidetza

MIRIAN BITERI > OÑATI

Koloneko eta ondesteko minbizia goiz detektatzeko programa jarriko dute laster martxan Oñatiko anbulatorioan. Hain zuzen, 50 eta 69 urte bitarteko gizon eta emakumeendako da programa hori.

Anbulatorioko arduradun Santiago Aietxuk jakinarazi digu adin tarte horretako oñatiarrek etxean poltsatxo bat jasoko dutela, horretan goroz-

ki-lagin txikiak jaso ditzaten. Jarraian, osasun etxean aurkeztu beharko dute. Lagin horiek Arrasateko ospitaleko laborategira eramango dituzte eta emaitza positiboa bada (odola aurkitu da gorozki-laginean), familia-medikura joan beharko dute.

Medikuak kolonoskopia zertan datzan zehaztasunez azalduko die eta proba egitea egokia den aztertuko du. Horren harira, Aietxuk nabarmendu gura izan du horrek ez duela esan nahi minbizia dutenik. Proba hori bi urtean behin egin ahal izango da.

Aietxuk gaineratu du oraindik ez dakitela noiz jarriko duten programa hori martxan.

POLITIKA > ETAREN BIKTIMAK

Lehendakaria, Carrascoren aldeko omenaldian

Isaias Carrascoren erailketaren bigarren urteurrenean, omenaldia egin zioten Arrasaten, Carrasco bizi izan zen eta erail zuten kalean.

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Bi urte bete dira PSE-EEko zinegotzi ohi Isaias Carrasco erail zutenetik, eta domeka eguerdian omenaldia egin zioten bizi zen eta erail zuten Navas de Tolosa kalean, San Andres auzoan. Omenaldian, hainbat herritarrek eta PSE-EEko agintari askok esku hartu zuten, tartean Patxi Lopez lehendakariak.

Segurtasun neurri zorrotzen artean eta hedabide ugariaren presentzian, lehendakaria eta Isaias Carrascoren bi alabak, alarguna, ama eta ahizpa tarimara igo ziren, haren irudiaren ondoan.

SOZIALISTEN LANA GORAIPATU

Lehenik eta behin, Carrascoren alaba Sandra hartu zuen hitza. Alabak alderdi sozialistako kideen lana goraiatu zuen: "Lan horrek egunen baten jasoko du

merezitako errekonozimendua, Euskadin askatasunez bizi ahal izatea". Bestalde, Sandra Carrasco terrorismoaren biktima guztiak omendu gura izan zituen, eta tartean Inaxio Uria izan zuen gogoan.

ETA AZKAR BUKATZEKO LANEAN

Horren ostean, Patxi Lopez lehendakariak hartu zuen mikrofonoa. Lehendakariak gogoratu zuen Carrascoren ustezko hiltzailea atxilotu berri dutela, eta azpimarratu zuen "terrorista guztiak justiziaren eskuetan jarri arte" ez dutela "atsedenik hartuko".

Horrekin batera, Lopezek jakinarazi zuen ETA lehenbailehen buka dadin ahalegin guztiak egiten dabiltzala; eta horretarako ezinbestekoa dela "lakra hori eta berau justifikatzen ahalegintzen diren ideia totalitario faltsuak" elkarrekin gaitzestea.

Bukatzeke, lore eskaintza eta minutu bateko isilunea egin zuten. Han bildutakoaren artean izan ziren, Carrascoren familiaz eta lehendakariak gain, Rodolfo Ares, Rafaela Romero, Jesus Egi-guren, Manuel Huertas, Iñaki Arriola, Miguel Buen, Odon Elorza, Paco Garcia, Aritz Arrieta eta Arrasateko PSE-EEko zinegotzi eta zinegotzi ohi gehienak, UGT-ko Damaso Casado eta beste.



Patxi Lopez lehendakaria, omenaldiko diskurtsoaren une baten, alderdikideak alboan dituela.

JOSETXO ARANTZABAL

ESANAK

"Alderdi sozialistako kideen lan gogorak egunen baten errekonozimendua jasoko du; Euskadin askatasunez bizitzea"

Sandra Carrasco > Isaiasen alaba

"Lakra hori eta berau justifikatzen duten ideia totalitario faltsuak gaitzesteko, guztiok elkartu egin behar gara"

Patxi Lopez > Lehendakaria

"Atzo bi hondeatzaile erre zituzten; bada, AHT egingo da eta askatasunaren garaipena irudikatuko du"

Patxi Lopez > Lehendakaria

BOULEVARD MODA udaberria gara

Kolorea sentitu,
utzi denboraldi berriak murgiltzen.
Zure estiloarekin bat egiten duen moda.
Hauxe zure udaberria da.
Hauxe zure gunea da.

Udaberriko moda desfilea
Ostirala, martxoak 26,
20:00etan.

Estiloz beteta, ZUTAZ beteta.

www.el-boulevard.com Bézereárenganako Arreta: 945 155 440

Mertxe Galdos > Moja, Txilen

"Itxaropena herrialde guztian piztu da eta gazteek elkartasun handia erakutsi dute"

JON BEREZIBAR > ARRASATE

Lurrikararen erdigunetik 400 kilometro bizi da moja oñatiarra, Txilen, hiriburu inguruan. Hondamendiaren gorrietatik urrun bizi badira ere, lurrikarak herrialde osoa astindu zuen. 1985ean joan zen hura Txilera eta etorkinekin egiten du lan ahizpa neverstarrak. Arropa, janaria eta higienerako gaiak batzen ibili dira behar larrien dutenei bidaltzeko. Hondamendiak txiletarren txarrena baina baita onena ere atera duela dio. Herritarren elkartasunean du itxaropena ahizpak orain.

Erreplikekin oraindik ikara gorputzetik atera ezinda egongo zarete.

Esperientzia bizi barik azal ezin litekeen bizipena da. Orro ikaragarria entzun zen lurraren barrenetik eta ostein hasi zen zorua mugitzen. Oreakari eutsi ezineko egoera da, minutu eta erdi iraun zuena, baina amaierarik ez zuela ematen zuen. Justu-justu, ohetik altxatu eta atearen markora gerturatzeke astia izan nuen. Ikara amaitu eta berehala atera ginen etxetik, bizilagunak zelan zeuden ikustera. Kalte handirik ez zuen izan gure etxeak, baina bai auzuneak. Santiago hiriko periferiako herririk baten gaude gu, jende txiroarekin, eta hemen solairu bakarrek zurezko etxolak dira gehienak. Egurrak kraskatzean ateratzen duen hotsa lazgarria da.

Zeintzuk dira benetako behar horiek?

Txileko presidenteari kritika gogorrak egin zitzaizkion kanpoko laguntza gerarazi eta benetako beharrak zehazteko denbora eskatu zuenean, baina hemen kontua da Txilen bertan elikagaiak eta materiala badaudela; herrialde aberatsa da. Orain beharrik larriena azpiegituren dago, berreraikuntza lanetarako. Orografia oso malkartsua da Txilekoa eta herrien artean komunikazioak eten egin dira. Orain zubi mekanikoak behar dira, adibidez, eta satellite bidezko telefonoak, telekomunikazio sistemak txikituta daude-eta.

Presidenteak armada kalera atera izana ere kritikatu izan dela entzun da.

Hori ez da egia, herriak berak eskatzen zuen. Arpilatzeak hasi zirenean herritarren artean izua zabaldu zen. Gutxiengo bat da lapurretan dabilena, baina kalte eta min handia egiten dute gutxi horiek. Concepcionen



Mertxe Galdos, 2007an Oñatira egindako bisitan.

GOIENKARIA

"Orro ikaragarria entzun zen lurraren barrenetik eta ostein hasi zen ikara; amaiezina"

"Telekomunikazioak eta azpiegiturak txikituta daude; zubiak eta telefonoak behar dira"

"Min handia eman digute arpilatzeen irudiek; gutxi batzuek kalte handia egin dute"

supermerkatu bat hustu eta su eman zioten. Hori guretzat ulergaitza da, gizakiak zelan egin dezakeen hori. Txilerentzat hori mingarria izan da biziki; hurkoaren, gure anai-arreben sufri-menduaren lepora probetxua ateratzea. Kolpea izan da hori, uste genuen Txilen hobeto heziak geundela, eta min handia eman digute arpilatzeen irudiek.

Hala ere, esaten da hondamendietan gizakiaren ilunena baina baita onena ere azaleratzen dela.

Eta halaxe da. Itxaropena herrialde guztian piztu da dagoeneko eta horrek norbera ere animatzen du. Bi egunean, ia modu sinestezinean, antolatuta dute elkarlan guztia. Adibidez, gure ahizpetako batek kartzelan egiten du lan eta, begira, presoek uko egin diote eguneko ogia-ri hondamendiaren gunera bidaltzeko. Hori izugarri polita da. Herrialdea oso modu hunkigarrian dabil erantzuten.

Epe ertainera, nekez aterako den zulo ilunean utzi du hondamendiak herrialdea. Krisi ekonomikoa eta orain hondamendia.

Kupre asko dauka Txilek eta horrek asko aberastu du herrialdea azken urteetan. Horregatik, krisiak ez du hain gogor jo, Estatuak hortik ateratako dirua orain arte gorde egin du. Hala ere, hondamendia hain izan da itzela, hiri eta herri asko bonbardaketa baten ostean bezala geratu dira eta azpiegiturak guztiz hondatuta daude. Urte asko eta asko beharko dira errekuiperatzeko eta dagoeneko esaten da sekula ere ez garela lehengora itzuliko. Itxaropen handia da daukaguna eta, batez ere, gazteek erakutsi duten elkartasuna.

etxeke leihotik



Inazio Arregi > zuzen@goiena.com

Bi izen propio

Bi izen propio izan ditu iragan asteak Arrasaten: Joseba eta Isaias.

Ez nituen bizirik ezagutu. Irakurritakoagatik, Joseba, desagertzeko zorian dagoen espezie bateko norbanakoa zen. Bizipozaren truke gizarteari bere askatasunaren zati bat eskaintzeko prest dagoen horietarikoa. Gazte langilea, eragilea eta aktiboa. Bere 19 urtetan espeleologian edo gaztetxe-ko "mobidetan" ikus zitekeena. Zoritxarreko istripu batek eraman du berak aukeratutako jardunean zebilela. Ez da lehen izango eta ezta azkena ere. Askok gara egoera berdintsuetan arriskuarekin jolasean ibilitakoak. Ezinezkoa da pertsona eta gaztearen ekimenari eta arriskuari mugak jartzea. Zoriak jokatzeko du gero. Batzuetan alde besteetan kontra. Arrisku hori baina norberaren bizitzaren parte bat da.

Duela bi urte hil zuen Isaias ETako kide batek. Bien heriotzek astindu zuten Arrasateko herria. Isaiasen bekatu bakarra alderdi baten eta herritarren ordezkaria izatea izan zen, hori bekatu bada. Hemen ez zuen zoriak jokatu. Nonbaiten norbaitek erabakitako erailketa gupidagabea izan zen. Gehiegitan gertatu da hau gure herrian, behin gehiegi baita. Haize berriak datozela dirudi. Sinistu nahi dut baikor setatsua naiz eta. Aurretik gertatutako guztia ahaztea baina, zaila izango da. Batzuen zat ezinezkoa.

"Ezinezkoa da gaztearen ekimenari eta arriskuari mugak jartzea"

> Ingelesa

ondo ikasi behar omen dute hemendik aurrera haurrek. Ondo deritzot, baldin eta gertuko hizkuntzak menderatzen badituzte. Esperientzia honi aspaldi ekin zioten ikastoletan. Zergatik ez dira kontuan hartzen?

> Errepideak

erabiltzaileok ordaindu beharko ditugu aurrerantzean. Ondo deritzot zergen bidez ordaindu ordez tasen bidez ordaintzeari. Kontua da zer gertatuko den oraingo ditugun zergekin. Jaitsi egingo al dira?

GREBA > ESKOLA-JANGELETAKO LANGILEAK

Astero-astero bi eguneko lanuzteak egingo dituzte

Oraingo astean, bihar eta egunean egingo dituzte lanuzteak jangeletako langileek

J.B. > BERGARA

Amaiera eperik gabe, astero bi eguneko lanuzteak egingo dituzte iragarri dute sindikatuak (LAB, ELA, CCOO eta UGT), joandako ikasturtean noiz-behinkako greba egunak egin eta gero. Oraingo astean, bihar (martitzena) eta egunean egin-

go dituzte lanuzteak. LAB sindikatuko bozeramaile Zuriñe Andresek adierazitakoaren arabera, "protestak gogortzea da aterabide bakarra". Hain zuzen, gatazkak urtebete iraun du dagoeneko eta aurrera egiteko modurik ez dute aurkitu bi aldeek. Langileen eskaera nagusia da irakasle ez diren gainontzeko langileen soldata parekatzea (% 5eko igoera) eta begirale bakoitzak zaindu beharreko haur kopurua txikitzea. Erki-degoan 3.500 langileek egin dute greba, 460 ikastetxe eta 55.000 bat ikasleri eraginda.

auzorik auzo

AIXOLA > Aramaioko auzoa da Aixola. Herritik 2,5 kilometrora dago auzoa. Orixol haitzen azpian kokatzen da, Uribarri auzoaren ondoan. Elizari dagokionez, Aixolak bere baitan hartzen du Arriola auzunea ere.



Santa Marina eliza atzean duela, plazan dago Josu Olaizola.

A.E.

Josu Olaizola > Aixolako auzo-alkatea

"Saneamendu eta ur lanak eginda, esan daiteke gaur egun auzoa ondo dagoela"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARAMAIO
Ingurune paregabean dago Aixola auzoa. Auzo lasaia da, hamar etxebizitza besterik ez du; eta eliza alde orain dela hiru urte berri zuten. Josu Olaizola alkateak kontatu dizkigu auzoak dituen goraberak.

Zein da gaur egun auzoaren egoera?

Egoera ona dela esan daiteke. Hamar etxebizitza daude auzoan, eta denetan bizi da jendea. Gainera, azkeneko urteetan gora egin du populazioak; izan ere, hainbat ume jaio dira. Esan behar da auzo bizia dela Arexola.

Kondaira batek dioenaren arabera, haize errota batek eman zion izena auzoari.

Bai, hala diote. Kondairaren arabera, haize errota bat zegoen auzoaren goiko aldean; eta izena handik dator: *haize-ola*.

Bestalde, esan behar da hemendik 200 metrora, goiko aldean, gune arkeologiko bat dagoela; eta, dirudienek, han zegoen errota hura. Gertatzen dena da gaur egun ez dagoela ezer.

Saneamendu lanak eginda daude. Zein da arazo nagusia?

Bai; 2007an egin ziren saneamendu lanak. Hodiak sartu zituzten, eta errepede ere konpondu zuten. Plaza inguruan, eliza ondoan egin zituzten lanok.

Momentu hauetan, esan daiteke auzoa ondo dagoela.

Egitekoak geratzen dira: adibidez, errepide bazterrean babes hesiak jartzea; eta baita umeendako jolasgunea jartzea ere.

Ura herrikoa eta putzukoak duzue. Putzuko ura dela-eta, diozu etorkizunean arazoak egon daitezkeela?

Bai, edateko herriko ura dugu, eta nekazaritzarako auzo-

an dagoen putzu batetik hartzen dugu ura. Bere garaian auzoan egindako putzua da.

Gertatzen dena da uraren kanona dela-eta, urte batzuk barru arazoak egongo direla. Putzuko ura erabiltzearen ordaindu egin beharko dugu.

Orixol haitzen azpian egonda, mendi ibilaldi politak egiteko aukera eskainiko du auzoak, ezta?

Bai, ibilaldi politak egin daitezke. Aixolan gora Santikurtzera joan daiteke. Bestalde, kaletik irtenda jendea ibiltzen da auzoan bertan pasean.

Santa Marina eliza dago auzoan. Egiten duzue jairik?

Uztailean ospatzen ditugu jaiak: egubakoitzean bertso afaria egiten dugu; zapatuan, txirridulari lasterketa ume eta nagusiekin eta ondoren, jolasak, musa, briska...

Eman du auzoak pertsona famatu edo ezagunik?

Garai baten, jauntxo bat zegoen auzoan, eta diote alaba zigortu zuela Gureiako Santiago jaientan mutil batekin dantza egiteagatik. Giltzapean izan zuen; ilea luze-luzea zeukan eta baita azkazalak ere. Baten bat gertatukoaz konturatu zenean, jauntxoak urrea ordaindu behar izan zuen kartzela saihesteko.

JAIK

Urteberri egunean umeak kantuan irteten dira

Santa Marina jaiak dira auzoko jai nagusiak; baina, horiez gain, beste ospakizun batzuk ere badituzte Aixolan. Adibidez, Arriolakoekin batera Santikurtz eguna ospatzen dute ekaineko lehen domekan.

Bestalde, Santa eskea egiten dute auzoan. Baina bada ohitura berezi bat Aixolan dutena: Urteberri egunean, Urteberri batzea egiten dute. Umeak kantuan irteten dira: *Urte berri urte berri, daukenak ez daukonari, nik ez dauket eta neri, viva urte berri!* Hala esaten dute umeek etxez etxe; eta batutakoak elkarrekin jaten dute gero umeek. Ohitura berezia eta polita da.

Abantailaz
betetako kluba!

Goiena
kluba

MARTXOKO ZOKETA

Telefona: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
Kuota: 45 euro



DANBAKAKO HIRU DISKA

Bidali KLUBA DANBAKA
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.

DANBAKA))))))



UMEENTZAKO LIBURUAK

Bidali KLUBA LIBURUAK
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



SASKIBALOIRAKO SARRERAK

Bidali KLUBA SARRERAK
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



GOIENAKO PENDRIVE-A

Bidali KLUBA PENDRIVE
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



SARI NAGUSIA URTARRILA-MARTXOA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOKKETATUKO DA

JOCCA RACLETTE



- Grill-plantxa estaldura itsasgaitzarekin eta ateragarria, erraz garbitzeko.
- Ez du oliorik behar.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZA mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotuan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

Bergarako Udalak '1512-2012 Nafarroa Bizirik!' ekimenarekin elkarlanean Euskal Herriko

historiari buruzko hitzaldiak antolatu ditu. Eguaztenean Beñi Agirre izan zen gurean eta 'Iru-

ñeko Erresumaren sorrerainokoa. Historiaurretik-IX. mendera' hitzaldia egin zuen. Etzi,

Mikel Lizasok Nafarroa Garaia-ren konkista azalduko du, udaletxean, 19:00etan.

Beñi Agirre > Historian aditua eta Nabarraldeko kidea

"Erromatarren garaian sortu zen jauntxo edo lur-jabe handien figura"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Nafarroako erresumaren sorrerara arte nola garatu ziren euskaldunen bizilekuak eta instituzioak azaldu zuen Agirrek eguaztenean. 60 lagun inguru elkartu ziren udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Gaiak interesa pizten duela dio Agirrek.

Mitoaren eta historiaren arteko ezberdintasuna egin gura izan duzu hitzaldi hasieran.

Lehenengo aipamena izan da Euskal Herria oso aberatsa dela mitoaren inguruan, mitologia asko daukagu. Harrigarria bada ere, historia kontatzerakoan, ikusten dugu historia kontatzen dela aitzinarotik hasi –mitologiatik– eta karlistaldietara pasatzen gara bat-batean. Kobetan bizi izatetik karlistaldietara. Hala, badirudi euskaldunok ez dugula hor tartean historiari izan.

Hor tartean gertatu zena zergatik ez da kontatzen?

Ez da kontatzen interesatzen ez delako. Ez dut uste ezjakintasuna dagoenik, baizik eta interesik eza. Hortaz, mitologia eta historia erreala bereiztea izan da hitzaldiaren lehenengo zatia.

Erromatarren garaian sortu zen jauntxoaren figura.

Iruñeko erresuma da aurretik datozen beste estamentuen azkeneko sorkuntza. Hau da, Iruñeko erresumaren aurretik, erromatarren garaian, aipatzen da euskaldunok izan genuela erromatarrekin harreman oso berezia. Euskaldunok *bagaudak* izenarekin parte hartzen zuten erromatarren armadetan.

Ezaguna da erromatarrek euren alde egiten zuten buruzagiei eskaintzen ziotela nolabaiteko estatus bat. Horrela, erromatarren garaian, hemen Euskal Herrian, bai Akitanian eta baita hegoaldean ere, sortu ziren jauntxo edo lur-jabe handien figurak.

Erromatar inperioaren ondoren godoak edo germaniarrak etorri ziren.

Godok ia Europa guztia menderatu zuten, Hispania osoa: Portugal eta gaur egun Andaluzia eta Gaztela diren lur guztiak erabat menderatu zituzten. Baina ez ziren gauza izan erromatarren garaitik hemen Euskal Herrian egon ziren buruzagiak menderatzeko. Horregatik, oso ezaguna da errege godo guztiak aipatzen duten *domuit vascones*–mendera-



Beñi Agirre, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

MONIKA BELASTEGI

tu ditugu vascoiak– esaldia. Horrek esan gura du aurrekoek ez zituztela menderatu, eta eurek baietz.

Ez zituzten dominatu, erromatarren garaian hemen geratu ziren buruzagiak ohituta zeudelako gerrara. Gainera, oinarri sozial bat antolatuta zegoen Vasconia Akitania dukerriaren izenarekin.

Garai hartan mamitu zen gaur egun Euskal Herria esaten dugun uste politikoa?

Haiek izan zitezkeen lehenengo hastapenak. Izaera politikoa baino gehiago, indarguneak eta nolabaiteko kontzientzia nazionala bazegoen jada garai hartan. Izate komun baten kontzientzia: hau da, Akitania Vasconiako lurraldeak hartzen zituen hasierako euskaldunek bere lurralde bezala zituzten lurralde guztiak, hasi Garonatik eta Ebroren hegoaldera, ia Dueroraino. Hori zen Vasconien lurraldea; baina orduan jauntxoaren lurraldea zen,

ERROMATARRAK

"Erromatarren garaian euskaldunok oso harreman berezia izan genuen erromatarrekin"

'DOMUIT VASCONES'

"Errege godoak ez ziren gauza izan erromatarren garaitik hemen zeuden jauntxoak menderatzeko"

ENKO HARITZA

"Eneko Haritzak, arabiarren laguntzarekin, frankoen armada gainditu zuen"

ez zegoen instituziorik. Bai, ordea, izaera komun baten ideia. Esan behar da garai hartan lurralde horietan euskaraz berba egiten zela; eta hizkuntzak berak ere bateragarri moduan funtzionatzen zuten.

Iruñeko erresuma nola sortu zen?


Herri honetako jendearen instrumentu bezala sortu zen. Garai hartan, iparraldetik frankoen erasoak genituen; hegoaldetik arabiarrena eta mendebaldetik Asturias eta Leongo erresumen erasoak. Erresuma horiek erabat espantsionistak ziren.

Hiru indar horien kontra borrokatu behar izan zuten euskaldunek Erdi Aroko zati hartan. Momentu esanguratsua izan zen Orreagako gudua 778an. Karlo Magno enperadoreari eta momentu hartan European zegoen armada handienari irabazi zioten euskaldunek. Kontua da 824. urtean beste gudu bat izan zela Orreagan. Bigarren har-

tan, frankoen erasoak aurre egin zioten euskaldunek. Karlo Magnoaren ilobak sartu gura zuen armada frankoekin Iruñean. Eneko Haritzak arabiarren laguntzarekin gainditu egin zuen frankoen armada. Orduan erabaki zuten sakabanatuta zeuden jauntxoek elkarte sortzea. Hau da, European antzekoak ziren beste instituzio bat sortzea, eta hark hartu zuen erresuma forma.

Hitzaldietan nabaritzen duzunaren arabera, zerk harritzen gaitu gehien?

Historia kontatzeko erabat ezberdina da hitzaldi hauek entzutea edo orain arte ezagutu izan dena. Abertzaleok guk geuk ere euskal mitologiari buruz asko dakigu Barandiaran eta Eguren bitartez; baina oso gutxi dakigu Erdi Aroari buruz. Eta ez gutxi dagoelako, baizik eta gutxi zabaldu delako. XX. mendean egin zen berba honetaz, baina ez zuten arrakastarik izan.



Mainer Arregi, Goiena Telebistako kazetaria, Azkaraten zubisaltoa egin ondoren.

Egin dugu salto

Orain digitalera salto egin dugu:

> **ARRASATEN**

Goiena Telebista dagoeneko digitalean:
ARRASATEN, ARETXABALETAN,
ESKORIATZAN ETA LEINTZ GATZAGAN.

Laster digitalean:
BERGARAN, OÑATIN, ANTZUOLAN,
ARAMAION ETA ELGETAN.

Goitb
Goiena Telebista
Ikustekoa!

kale inkesta

Zer irudituko litzaizuke Beasain-Durango eta N-1 errepideetan bidesaria jarriko balute?

Juan Sanchez
Erretiratua
Bergara

Jakin badakigu errepideek gastuak dakartzatela. Baina uste dut malguagoak izan beharko lirakeela. Ez zait ondo iruditzen bidesaria jartzea. Erabiltzen dituenak ordaintzearena? Zergekin ordaintzen ditugu!

Virginia Rubio
Langilea
Bergara

Ez zait batere ondo iruditzen. Dirua ateratzeko beste modu bat besterik ez da. Baina azkenean politikariek erabakiko dute, eta hala nahi badute, jarriko dute. Ondorioa izango da jendeak gutxiago erabiltzea bideok.

Paulino Alustiza
Erretiratua
Bergara

Oso gaizki iruditzen zait bidesaria jartzea errepide horietan. Lehen ere nahikoa ordaintzen ditugu zerga bitartez. Autobidea eta ordaintzea bai, baina beste errepideek bidesaririk gabekoak izan beharko lukete.

Santos Borobia
Erretiratua
Bergara

Arnasa hartzearen ere ordaindu egin beharko dugu azkenean! Berriz ere menditik joan beharko dugu oinez, edo astoan, garai batean bezala. Isildu eta ordaindu egin behar; edo etxean geratu; edo trenan erabili.

zorroztailea



Larraitz Ugarte

Martxoak 8 eta hedabideak

"Nelson Mandela izan zen bere garaian Hegoafrikako CNA alderdiko talde armaturako errekrutatu ninduen, hain justu! Hala jakinarazi zuen Ronnie Kasrilsek, Mandelaren gobernuan Defentsa ministro ordea izan zenak, hedabideetan".

Eguneko gaiak
Gara > 2010-03-04



Nere artikulua martxoaren 8an publikatuko zela-eta, pozozik nengil emakumeon egoeraren inguruko hausnarketa kaleratzeko aitzakia ezin hobea iruditzen baitzaidan. Izan ere, urtero badago tradizioz emakumearen nazioarteko eguna iristear dagoela emakumeon inguruko datu eta iritzien bonbardaketa bat egiteko: langabezia datuak direla, genero indarkeria dela... Urtero? Aurtengoan, behintzat, martxoaren 8aren aurreko astea desertu bat izan da emakumeon albittegi dagokionean. Ezin izan ditut aurkitu! Agian "Chavezen diskurtsoak eta trama colonbo-euskaldunak" asteko kulebroia eskaini digutelako Eloy Velascoren zuzendaritza patetikoaren pean; agian Orlando Zapataren heriotzak betikoek Kubaren kontra berriro ekiteko txanpa ikusi dutelako edo Espainiako Entzutegi Nazionalak Mandelaren biografia asmatu duelako... Ez ote da behintzat emakumeok gizarte parekidea lortu dugula, eta beraz, albiste izateari utzi diogula uste duen kazetari inozo asko dagoelako izango!

Ez naiz egunak sakralizatzearen aldekoa. Urte osoan egin behar da lana. Ados. Baina martxoaren 8a oso egun garrantzitsua da emakumeontzat. Gure kontrako diskriminazioak bere horretan dirauela gogoratzeko eguna da. Garaipen asko lortu ditugula, baina oraindik, Euskal Herrian bertan lortzeko asko dugula erakusteko eguna da: berdintasuna formal baina berdintasun erreala baldin badakizaguz. Opatzeko, gure artean biltzeko eta batipat borrokarako eguna da.

Gaur, hedabideetan urtean zehar ez dugun protagonismoa hartuko dugu eta gaueko albistegietan guk behartuko ditugu emakumeok albiste izatera, ez biktima, langabetu... bezala, gure eskubideen defentsa egiten dugun pertsona bezala baizik. Hedabideek gure mezuak eta aldarrikapenak gutxienez Orlando Zapatarenak beste zabaltzea espero dut, anekdota eta adibide xebreak jasotzearen kazetaritza estiloa alboratu eta gai honek merezi duen sakontasun, seriotasun eta errespetua zartagian jarriaz.

"Emakumeon aldarrikapenak Orlando Zapatarenak beste zabaltzea nahi nuke"

"Urte osoan egin behar da lana"

irakurlearen txokoa

943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

ARRASATE

> Olio jasotzeko poteetan erabilitako hizkuntza

Irakurle batek gugana jo du Arrasaten banatu dituzten olio jasotzeko poteetan erabilitako hizkuntza aukeraketarekin konforme ez dagoelako. Irakurle horrek jakinarazi du poteetan azalpenak euskaraz, gaztelaniaz, gailegoz eta katalanez datozela, baina gaztelazkoa bestean aldean oso handi agertzen dela. Eleanitza izatea ondo deritzo, baina euskara hala gutxiestarekin haserre dago.

ARETXABALETA

> Aretxabaleta eta Arrasate arteko bidegurutzak

Oñatiar batek esan digu joan den astean Aretxabaletara joan behar izan zuela, eta beldurtuta gelditu zela egiten dabilzan lanen ondorioz, errepidearen egoera ikusita. Hain zuzen ere, nabarmendu zuen Arrasate eta Aretxabaleta arteko bide zaharretik abiatuta saihesbidera sartzeko egin duten bidegurutzak oso arriskutsua deritzola: "Sarrera aldapa goran dagoenez eta saihesbidetik azkar- datozen autoak ondo ikusten ez direnez, arriskutsua da bertara sartzeko".

ARRASATE

> Joseba Iglesiasi egindako omenaldia txalotu

Arrasatear batek deitu digu esateko hunkituta gelditu dela gazetxeok eta beste hainbat herritarrek Joseba Iglesias zenari egindako omenaldiagatik. "Bi egun eskasetan gai izan dira jende ugari batu eta egitarau polita eta hunkigarria egiteko. Zorionak!".

ustek uste

Txomin Madina

Ta hi, zeinena haiz?

Galdera hori egiten didate sarri herrian bertan base-rriren batera joan eta Oñatikoa naizela esatean. Galdera zuzena, eta erantzuna ia beti prest; amaren edo aitaren baserriaren izena.

Galdera zuzena esan dut, zenbaitentzat akaso baita bortitza ere. Ze inportako ote du nondik datorren bat? Ni, ni neu naiz, eta kitto... Baina pentsatzen jarrita, galdera horrek badu bere funtzioa, gertutasuna sortzea, nola baiteko konplizitatea. "Bai, zure aitaren lagun handia naiz ni..." edo "Gogoratzen dut behin zuen base-rrira joan nintzela..." Hortik, hamarretakoa egitera gonbidatza ez da ezer geratzen.

Alde ederra galderari "San Lorentzoko 53. zenbakikoa naiz ni" erantzunez gero! Sustraiak sustrai direnaren seinale; zenbaitetan ez, baina gehienetan onerako.

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • E05 Basabe Poligonoa • 20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Monika Belastegi
Asteburuko erredakzioaren arduraduna Iker Barandiaran Erredakzioa Txomin Madina, Julen Iriondo, Jokin Bereziartua
Oinarriko diseinua Golo Arana Diseinu arduraduna Iñaki Iturbe Maketazioa Kepa Martelo Publizitate arduraduna
Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale • Difusioa: 4.383 ale



ASTELEHENKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako
Foru Aldundia




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 14 Bergara > 16 Oñati > 18 Aretxabaleta > 19 Eskoriatza > 19 Antzuola > 20 Aramaio > 20 Elgeta > 20 Leintz Gatzaga > 20



> ARRASATE

Eguenetako pintxo-poteoa erabat barneratuta dago eta taberna gehiago batu dira ekimenera > 14



> ELGETA

Azken bost hilabeteotan, aspaldiko partez, hiru komertzio berri zabaldu dituzte herrian > 20



> ARAMAIO

Udalak, Osakidetzak, Gurutze Gorriak eta Aldundiak emergentziatzeko plana zehaztu dute > 20

ARETXABALETA > PARTE-HARTZE PROZESUA

Kirol etxe aurreko berdegunerako sei proposamen aztertzen dihardute

BI SAIO

Kudeatuz programaren bi bilera egin dituzte dagoeneko

HILAREN 27AN Egun horretan egingo duten saioan erabaki adostua hartzen saiatuko dira

30 HERRITAR Pozik daude guztiak prozesuarekin; 30 herritar inguruk parte hartu dute

MIRIAN BITERI > ARETXABALETA
Aurrera doa Aretxabaletako Markole auzoan, kirol etxearen aurrean dagoen berdegunearen erabileraren gaineko parte-hartze prozesua. Dagoeneko Kudeatuz programaren bi saio egin dituzte eta antolatzaileak eta horietan parte hartu dutenak pozik daude, egon den giroagatik eta parte-hartzaile kopuruagatik. Bietan, 30 bat herritar eta elkartetako ordezkari bildu dira.

Urtarrilaren 30ean egindako lehen saioan ingurune horretarako proposamenak jaso ziren. Guztira, sei aukera aurkeztu ziren. Kirol instalazio ezberdinak eta jolasparkea partekatuko dituen gunea egitea proposatu zuten hainbat herritarrek. Askotariko kirol instalazioak izan daitezkeela aipatu zuten; hala nola zortziko futbola, paddlea eta tenisko kantxa.

Erreka-putzua eta berdegunea egitea planteatu zuten beste hainbatek; erreka garbitzea eta igerileku natural eta hondartza artifiziala sortzea, hain justu ere. Kanpoko igerilekua eskatu zutenek ere egon ziren saio horretan; baita ingurune horretan parke botanikoa egitea proposatu zutenak ere.

Horretaz gain, zenbait herritarrek berdegunea gaur egun dagoen moduan uztea nahi zuten,



Arkupen egin dituzte Kudeatuz programaren batzarrak; hirugarren eta azkena ere han izango da.

ARTEMAN

erabilera askotariko gunea izan dadin; esaterako, zirkua jartzeko edo helikopteroak lurra har dezan. Azken proposamena bertako zelaiaren azpian aparkalekuak egitea izan zen.

PROPOSAMENEN BALORAZIOA
Bestalde, otsailaren 20an egindako bigarren saioan, mahai gainean jarritako proposamen bakoitzaren balorazioa egin zuten udal teknikariek; besteak beste, proiektu horren bideragarritasuna, arazoak eta mugak eta horren aurrean dauden alternatibak

azaldu zizkieten udal teknikariek herritarrei.

Horren harira, Kirol teknikari Asier Muxikak azaldu digu harrera onena izan duten proposamenak askotariko kirolgunearena eta jolasparkearena eta erreka-putzua izan direla. Muxikaren arabera, berdegunea dagoen moduan uztearena ez da bideragarria, normalean han oso aktibitate gutxi izaten delako. Kanpoko igerilekuari dagokionez, aipatu du kostu ekonomiko ikaragarria izateaz gain, Euskal Herrian horrelako ekipamen-

duen erabilgarritasuna mugatua dagoela. Bestalde, gaineratu du parke botanikoa herriko beste edozein tokitan egin daitekeela; aparkalekuei dagokionez, azkenik, udal ordezkariak azaldu du egun Aretxabaletan ez dagoela aurreikusita lur azpian aparkalekuak egitea.

AZKEN SAIOA, HILAREN 27AN
Hirugarren eta azken saioa martxoaren 27an, zapatua, egingo dute. Muxikak azaldu digu saio horren helburua dela denon artean adostea ingurune horretan zer egin

nahi den: "Saio horretan proposamenen bateragarritasunak aztertu eta horien arteko nahasketa irtengo da ziurrenik". Aztiker kabinete soziologikoa arduratuko da saio hori bideratzeaz. Hortik ateratzen denarekin Udalera bidaliko den txostena egingo dute.

Muxikaren esanetan, "hori gero noiz edo nola garatuko den eta dagokion dirua eta data zehaztea beste kontu bat da. Garbi dagoena da kirol etxe lanak amaitu eta gero egingo dela. Ez dut uste legealdi honetan egingo denik".



Mendiko omenaldian 200 lagun inguru batu ziren.

JULEN ELORTZA



Bazkalostean aureskua dantzatu zuten Iglesiasen bi lagunek.

J.B.



AGAKOk kideek txalapartarekin egin zieten harrera Zabalaundira hurbildu zirenei, udalatxen begiradapean.

JULEN ELORTZA

ARRASATE > OMENALDIA JOSEBA IGLESIASI

Maitasun erakustaldia kolpe latzari aurre egiten saiatzeko

Zabalaundin zein Arrasateko gaztetxean jende andana bildu zen Iglesiasen oroimenez

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE
Mendia eta Arrasateko gaztetxea ziren Joseba Iglesias gazte arrasatearraren leku kuttunenak eta bertan egin ziren haren oroimenezko ekitaldiak. Goizean 200 lagun inguru batu ziren Zaba-

laundin. Txalapartariak, aureskua eta lore eskaintza –bertaratutako bakoitzak arrosa bana utzi zuten– egin ziren. Gainera, Iglesiasen Dorletako Ama txirindularitza taldekoek maillota utzi zuten arrosen ondoan. Gero,

hamaiketakoa egin zuten Pake Leku etxolan. Ekitaldi hunkigarria izan, baina aldi berean, AGAKOK –Gaztetxeko asanblada– jakinarazi duenez, "giro polita" izan zen. Gero, menditik gaztetxera: 15:00etan hasi zen bazkaria.

ELKARTASUN UHOLDEA

140 lagun bildu ziren bazkarian, ez zegoen gehiagondako lekurik. Menua, Iglesiasen gustukoena: kalabaza purea, lasagna eta bizkotxoa. Eta bazkalostean heldu zen, agian, eguneko unerik hunkigarriena, haren argazkiez osatutako bideoa jarri zutenean, hain zuzen. Bideoaren ostean, Iglesiasen omenezko mural ondoan talde argazkia egin zuten. Eta azkenik, senitartekoen eta gertukoenen adierazpenak, bertsoak eta Iglesiasen musika taldearen kontzertua izan ziren. Finean, maitasun keinuak izan ziren protagonista, Joseba herrian oso estimatua zen seinale.

BERGARA > EUSKAL HERRIAK BERE ESKOLA

Jende dezente bildu zen egubakoitzeko ekitaldi kulturalean

Martxoaren 13ko manifestaziorako deia egin zuen EHBEK; Bilbora joateko autobusa egongo da

J.B. > BERGARA
Haurrendako jolasak, Enaitz Alustiza bertsolaria, trikitilariak eta erdarazko hezkuntzaren inposizioa irudikatzen zuen antzerkia egin zuen EHBEK egubakoitzean. Jende dezente izan zen ekitaldian; antolatzaileak, pozik.

ESKUALDE AUTOBUSA ZAPATURAKO
Hiru eleko sistemaren aurka eta hezkuntza sistema propioaren alde martxoaren 13an Bilbon egingo den manifestaziorako eskualde autobusa antolatu dute: Aretxabaletan (15:30), Arrasaten (15:45) eta Bergaran (16:00) geratuko da.



Ekitaldi kulturalean aurretik, haurrendako jolasak izan ziren Munibe plazan.

JOSETXO ARANTZABAL

ARRASATE > HAITIRI LAGUNTZEKO PINTXO POTEOA

Sustatzaileak oso gustura pintxo poteoak lortutako arrakastarekin

Azken kopurua zenbatekoa zein den jakin ez arren, diru asko batu dute Haitirako

TXOMIN MADINA > ARRASATE

Eguraldi iragarpen txarren ondorioz joan den astean bertan behera geratu ostean, azkenean zapatuan egin zuten Arrasaten Haitiri laguntzeko dirua batzeko pintxo poteoa.

Harreman GKEa eta Arrasate Bizirik ostalarien elkarteak izan dira ekimenaren sustatzaileak, eta oso gustura agertu dira zapatuan ekimenak izandako erantzunarekin. "Balorazio oso positiboa egiten dugu, jende asko etorri zen

ekimen honetan parte hartzera", azaldu digu Monte tabernako Juan Carlos Davilak.

BI GUNE NAGUSI

Pintxo poteoa bi lekutan burutu zen: batetik Biteri plazan, eta bestetik Arrasate Bizirik barruan dauden tabernetan. Lehenengoa batutako diru guztia zuzenean Haitirako izango da; tabernetan, aldiz, saldutako botila bakoitzeko euro bat bideratuko dute Haitira bidaltzeko.



Pintxo eta tragoa hartuta, Haitiri laguntzeko prest.

JOSETXO ARANTZABAL

Biteri plazan gainera, puzgariak ere jarri zituzten, eta gaztetxoek ilara handiak sortu zituzten berauetan ibili ahal izateko.

Oraindik ere zehazki zenbat diru batu duten jakin ez arren, Juan Carlos Davilak azaldu zuen diru asko jaso zutela eta berau

Mesedeetako mojen bidez bideratuko dutela Haitira. Asmoa da diru horrekin han, kalean bizi diren umeei laguntzea.

BERGARA > OSINTXUKO SANTU MARTIRI JAIK

Txirrindulariak, jolasak eta bertsolariak; jaietako menua

T.M. > BERGARA

Auzoko jai ofizialak, Kofraixak, abuztuan diren arren, Santu Martirien jai mantentzeko asmotan egun honen bueltan hainbat ekitaldi antolatzen hasi ziren Osintxun duela hamabost


urte inguru. Zapatu honetan ere halaxe egin zuten, eta egun ederra pasa zuten auzotarrek.

Eguraldi ona lagun, osintxuarrak Lokatza elkarteekin elkarlanean aritu ziren Osintxu-Osintxu proban laguntzen.

Arratsaldean, auzoko gaztetxoek antolatuta, betiko jolasak egin zituzten plaza inguruan; txokolate-jana ere ez zen falta izan bertaratu zirendako.

BERTSO-AFARIA

Gaua heltzearekin, bertso-afaria egin zuten Txuringon Jon Maia eta Aitor Sarriegi bertsolariekin. 40 pertsona inguru elkartu ziren afarian, eta giro onean ibili ziren goizeko ordu txikiak arte.



Neska-mutikoen antzinako jolasetan ibili ziren.

J.A.

Carrefour

GORBEIA

Eraman hiru, ordaindu bi!

PESCANOVA
Legatz-solomo edo legatz-medailoiak 400 g (1) edo legatz-bihotzak 500 g (2)

Unitate 1 erositara
4,95€
(1)Kiloa 12,38€
(2)Kiloa 9,90€

3x2
Unitatea
3,30€
(1)Kiloa 8,25€
(2)Kiloa 6,60€

Corazones de Filete de Merluza
PESCANOVA
El bueno sabe bien

Medallones de Filete de Merluza
PESCANOVA
El bueno sabe bien

Lomos de Merluza
PESCANOVA
El bueno sabe bien

Kombina itzazu zeuk nahi duzun moduan

LA GULA DEL NORTE
Gula freskoak
100g, 2 unitateko pack-a
Pack 1 erositara
5,20€
Kiloa 26€

3x2
Pack-a
3,47€
Kiloa 17,35€

SAN ASENSIO
jatorri-izen kalifikatua duen Errioxako ardoa
Ardo beltza
75 cl

Botila 1 erositara
2,65€
Litroa 3,53€

3x2
Botila
1,77€
Litroa 2,36€

ARIEL
detergente-hautsa Actiliftarekin
44 ontzi txiki

Unitate 1 erositara
13,50€
Ontzi txiki bakoitza 0,31€

3x2
Unitatea
9€
Ontzi txiki bakoitza 0,20€

DODOT
EXTRA ABSORCIÓN
12h SECO
SUAVIDAD Y PROTECCIÓN
106 unidades

3x2
Packa
13,30€
(1)Unitatea 0,12€
(2)Unitatea 0,13€
(3)Unitatea 0,16€

DODOT
EXTRA ABSORCIÓN
12h SECO
SUAVIDAD Y PROTECCIÓN
106 unidades

3x2
Packa
13,30€
(1)Unitatea 0,19€
(2)Unitatea 0,20€
(3)Unitatea 0,24€

Martxoaren 11ra arte

Prezio hauek Carrefour GORBEIA-rako balio dute

GIZARTEA > PINTXO-POTEA

Eguenetako pintxo-potea erabat barneratuta Arrasaten

Pintxo eta ardo salmentak gora egiten du eguenean; iazko Maritxu Kajoi bezperan saldu zuten gehien: Alkorta ardoaren 16 kaxa, eta 10 kavarenak

UBANE MADERA > ARRASATE

Eguazten iluntzean kalera irten edo eguenean irten ez da gauza bera Arrasaten; ez, behintzat, erdigunean. Eguenetako pintxo-potea da *erruduna*. Iaz estreinatutako ekimenari jarraipena eman eta lan osteko ohitura bihurtu da askorendako eguenean arratsaldea apur bat luzatu, lagunekin elkartu eta pintxo-potean jardutea.



Herriko koadrilak Monte taberna kanpoan, eguen iluntzean.

U.M.

TABERNA BAT GEHIAGO

"Herriak oso ondo hartu du gure inizatiba, jende mordoia etortzen da eta gu oso pozik gaude. Denetik etortzen da: nagusiak, gazteak, familiak umeekin... Igotzen

joan da parte-hartzea. Iaz, hasierako hilabeteak joan ziren apur bat kili-kolo, baina igotzen joan da", esan du Juan Carlos Davilak, ekimenaren bultzatzaileetako batek eta Monte tabernako uga-

zabak. "Kanpotik ere etortzen dira, Aretxabaletatik autobusez, adibidez, eta Oñatitik koadrila bat etortzen da, eta, txandaka, astero geratzen da euretako bat ardoa edan barik, gero autoa bueltan eramateko", gaineratu du.

Pintxo-potean parte hartzen duten tabernariak ere gustura daude, Arrasate Bizirik elkarteak dira. Aurten, gainera, bat gehitu zaie: Monte, Lorategi, Zuk Nahi, Hilarion, Dublin, Hotel Mondragon eta Iturriotz tabernak dira kide. Orain arte moduan, Domelech upategiarekin egin dute hitzarmena ardo ondua ekartzeko: "Eskertu egin gura diegu; apustu oso gogorra egin zuten, hasieran. Eurak ere oso pozik daude".

Bukatzeko, Ibai Arte merkataria elkarteak ere balorazio positiboa egin duela dio Davilak, "jendea kalean egotea denondako" delako ona.



GOIENKARIA

Juan Carlos Davila > Monte tabernako ugazaba

"Nire ustez, ez gabiltza besteei txarto egiten"

U.M. > ARRASATE

Pintxo-potea ekitaldiak herritarren artean sekulako arrakasta izan duen arren, tabernari batzuek ez dute horren ondo hartu.

Kritika ugari entzun behar izan dituzue, ezta?

Bai, baina norberaren etxean bakoitzak nahi duena egiten du; beste tabernari batzuek beste gauza batzuk egiten dituzte eta ez dugu ezer esaten. Eskatu gura dugu errespetua. Elkartu gara taberna batzuk eta egin dugu ekimen bat; jendeak oso ondo hartu du. Baldintzak zeintzuk diren badakigu, irabaziak ere bai. Nire ustez, ez gabiltza besteei txarto egiten. Beraz, gurearekin segituko dugu.

Kopiatu ere egin dute ingurukoek...

Orain bi aste hasi ziren Bergaran, eta Aretxabaletan joan den astean; beraz, zerbait badu...

Zuen ekimenerako gehitu daitezke bestelako tabernak?

Abuztuan izan zen zabalik apuntatzeko epea, eta Iturriotz taberna etorri zen. Beste inor ez. Adibidez, taberna bat bere kontutik dabil pintxo-potea egiten eta esaten ei du Arrasate Bizirik elkartekoa dela, baina ez da horrela.

HERRITAR ETA BISITARIAK GUSTURA



Eugenio Merchante
Leon

"15 urteotan astero nator, txikite-roak gara. Dena den, pintxo-potea pizgarria da, gazte gehiago animatzen da, eta ea ba horrek ere laguntzen dien saltokiei, mordoia ixten dabilta-eta".



Ane Lopez bikotekidearekin
Arrasate

"Ostegunero etortzen gara. Pintxo-potea ideia ona da. Gu orain urte pasa hasi ginen etortzen, eta pintxo-poteak lagundu egiten du giroa sortzen, ondo dago ostegun batean halako giroa sortzea. Egia esan, gure ezagun gazte askorik ez dator, baina poliki-poliki... halako ideiak onak dira".



Lourdes Aranbarri eta lagunak
Gasteiz

"Ia eguenero etortzen gara, izeba bisitatzera etortzen gara, harekin pintxo-potea hartu eta Gasteizera bueltatzen gara. Oso giro polita sortzen da. Gustatuko litzaiugue denbora luzeagoz geratzea, baina gero autoa hartu beharra dago. Gasteizen ere badugu, eta han ere jende mordoia ateratzen da kalera; bereziki, ikasleak".

80 urte bete dituztela-eta ospakizunean

Uribarriko egoitzan mahaiaren bueltan elkartu ziren egubakoitzean 39 lagun, 80 urtekoen omenaldian. Aipamen berezia izan zuten Ulpiana Valverde (93 urte) eta Eugenio Apaolazak (90 urte), nagusienak izatearren. Ostean, opariak banatu zizkieten guztiei.

Bestalde, iragarri dute martxoaren 17an 104 lagun (bi autobus) Aginagako sagardotegira joango direla.



U.M.

UDALA > OSOKO BILKURA

750. urteurreneko egitaraua prestatzen dabil Udala

Egueneko osoko bilkuran esan zuten jasotako ekarpenak aztertzen dabiltzala

U.M. > ARRASATE

Bi gai nabarmendu ziren martxo osokoan: udalerraren 750. urteurrena eta Fagor Garagartzaren karga urbanistikoa Udalak bere gain hartzea.

Herriaren urteurrenaren harira, esan zuten egitaraua prestatzen dabilela Udala. Hainbat talde proposamenak aur-

keztu dituztela, orain horiek aztertzen dabiltzala, eta gero egitaraua prestatzeko aurrekontua landu beharko dutela. Esan zuten, baita ere, egitaraua ez dela mugatuko Arrasateri hiri-gunea eman zioten eguenera (maiatzaren 15a), hori baino luzeagoa izango dela.

Bestalde, Fagorrek kargak Udalak bere gain hartu izanak, labur esanda, esan gura du Udalak eraikiko duela Fagorrek Garagartzan eraiki behar zuen biribilgunea. Trukean, Fagorrek 1,2 milioi euro pasa emango dizkio Udalari.

nire bidaia hura

Julen Ezkurra

Afrika > 2009ko irailtik azarora

"Poliziak bazarretan saltzen den jostailua erakutsi zidan, furgonetan azkar gindoazela frogatzeko"

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Julen Ezkurra arrasatearrak bi hilabete eta erdi eman zituen joan den urtean Afrikan. Udan, Bartzelonan lanean zegoela ezagututako Alba Quintanarekin egin zuen bidaia. Horren gaineko balorazio positiboa egin du, errepikatze moduko bidaia dela esan digun neurrian.

Uda partean, Bartzelonan sorosle moduan lanean zegoela, Alba –orain neskalaguna– ezagutu zuen Ezkurrak eta bion artean pentsatu zuten abenturazko bidaia merkea egitea, furgonetarekin: "Afrikara joatea pentsatu genuen; gainera, ni lehenago bitan egonda nengoen Marokon".

Irailaren 11n irten ziren Bartzelonatik. Espainiako hegoalderantz abiatu ziren eta Andaluzian hainbat egun eman zituzten, Gibraltar, Tarifa eta Algeciras bisitatzen. Azken horretan, Tangerrera doan ferry hartu zuten. Marokon, barnealdetik Saharara joan ziren eta handik, Mauritania eta Senegalera (Dakar). Itzulera Mauritaniatik eta Saharatik egin zuten ostera; baina Marokon, barnealdetik joan beharrean, kostaldea ezagutzea erabaki zuten. Azkenik, Ceutatik Bartzelonara igo ziren. Ezkurraren esanetan, "bi hilabete eta erdiko bidaia izan zen; horietatik, 35 egun inguru Marokon egin genituen".

RAMADAMA

Ezkurrak bidaiaren zehar gertatutako bitxikeria asko dituela azaldu du. Gogorazi du, besteak beste, Marokora heldu zirenean Ramadama zela eta ferrytik jaistean, aduanako poliziak hiru ordu izan zituela zain, gaua zelako eta jaten zegoelako. Saharako desertuan, bestalde, snowa egiten ibiltzeaz gain, arrasatearrak aipatu digu furgoneta hiru bider geratu zitzaizela hondarre-



Bi hilabete eta erdi eman zituzten joan den urtean Afrikan Julen Ezkurra eta Alba Quintana.



Julen Ezkurra eta Alba Quintana.

an sartuta: "Batean, gaua iritsi zitzaigun eta gu furgoneta handik atera ezin. Bi ordu eman genituen ahalegintzen, eta, hala-

ko batean, militarrek hurbildu zitzaizkigun eta euren lur orotako ibilgailura lotuta atera genuen. Amaitu zutenean, alkohola eta tabakoa eskatu ziguten".

Dakarren, berriz, furgonetan afaltzen zeudela gizon bat ikusi zuten bere autoa martxan jarri ezinda; laguntzen zeudela konturatu zen furgonetako giltzak barruan utzi zituela eta atea automatikoki itxi zirela. Sabai eraigarritik sartu behar izan zuen Ezkurra. Beste behin, Marokon furgoneta gidatzen zegoela seinale batean ikusi zuen gehienez 90 kilometro orduko abiadurara joan zitekeela:

"85 kilometro ordura gindoazen; kurba batean patruila jarri zen atzean eta errepide ertzean geratu gintuzten, azkar gindoazela esaten. Frogatzeko eskatu nien eta bazarretan mutikoendako saltzen duten jostailua erakutsi zidan eta 160 kilometro orduko gindoazela esan zidaten. Barrezka hasi nintzen; azkenean, isunik ez zidatela jarri behar esan zidaten".

Bitxikeriak albo batera utzita, Ezkurra jakinarazi digu pasatutako beroa gogorra egin zitzaizela: "Mauritanian, Saharan eta Senegalen 43 graduraino heldu ginen eta ezin genuen

lo askorik egin". Horretaz gain, han daramaten bizimodua eta eskean dabilzan mutiko eta zaharrak ikustea ere gogorra izan zela dio.

Bestalde, jendea, furgonetan bidaia hori egin ahal izatea eta paisaiak gustuko izan dituela gaineratu du. Azken horren harira, azpimarratu du Marokon 4.167 metroko garaiera duen Toubkal menditik ikusten zen ingurunea.

Bidaia horren balorazio positiboa egin du: "Horrelako beste bat egingo dugula badakigu; Afrikatik gehiago bidaiatzea gustatuko litzaidake".

HEZKUNTZA > EKITALDIA

Egubakoitzean inauguratu zuten Musakolako haurreskola, herriko hirugarrena



Egubakoitzeko inaugurazio ekitaldia.

M.B.

Ekipamendu berriak 0 eta 2 urte bitarteko 21 ume har ditzake; gaur egun, 12 haur daude han

M.B. > ARRASATE

Musakola auzoko haurreskola atea urtarrilaren 11n zabaldu bazituzten ere, instalazio berri horien inaugurazio ofiziala ez zen joan den egubakoitzera arte egin. Zentro horretako hezitzaile eta gurasoez gain, administrazioetako ordezkariak ere izan ziren arratsaldeko lehen orduan egindako inaugurazio ekitaldian; tartean, Arrasateko alkate Ino Galparsorok, Hezkuntza zinegotzi Oihana Aran-

buruk eta Haurreskoletako gerente Maite Larrañagak parte hartu zuten.

Eraikin berriak egun 12 haur baditu ere, 21 hartzeko tokia du. 0-1 eta 1-2 urte bitarteko ikasgela bana, erabilera askotariko ikasgela, sukaldea, harrera gela, biltegia eta aldagelak ditu.

"BEHARRA" ASE

Ekitaldian alkateak nabarmendu zuen auzotarrek jakingo dutela "gozatzen" zerbitzu hori egiteak kostatzen duen duen esfortzu ekonomikoa –300.000 euro ingurukoa izan da–. Haurreskoletako gerente Larrañagak, berriz, esan zuen haurreskolen harira Musakolakoarekin Arrasatek zuen "beharra" ase egin dela. Horren ostean, jaialdia egon zen ikastetxean, txokolata-jana eta txikiendako jolasak.

Koldo Lasa > Sukaldaria

"Halako sariak gustura hartzen ditugu, azken urteotan lantaldeak egindako lanaren aitortpena direlako"

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Lasa jatetxeak 2009ko eztei bazkaritarako jatetxe onenaren saria jaso berri du. Koldo Lasa "pozik" dago jasotako aipamenarekin, "urte askotan egindako lana" saritzen duelako. Sukaldariarekin egin dugu berba.

Eztei bazkaritarako jatetxe onenaren saria jaso duzue. Pozik zaudete?

Jatetxeko lantaldeak egindako lanaren aitortpena da. Bezeroekin dugun hartu-eman, tokia, lantaldea... Guztiak hartu dituzte kontuan. Eta bai, oso pozik eta gustura gaude.

Zer eskaintzen du Lasak, beste batzuek ez dutena, sari hori merezitzeko?

Orain aipatu bezala, tokia, lantaldea eta bezeroekin hartu-eman dira gure ezaugarri nagusiak. Baina, gaineratuko nuke urte askotako esperientzia dugula. Ni jatetxeko hirugarren belau-naldia naiz. Eskarmentua hartu dugu, eta gure lekutxo egin dugu jatetxe onenaren artean.

Ezkontza sasoiaren bete-betean sartuko gara laster. Zela dator aurtentzen?

Oraingo aste bukaeran hiru ezkontza eduki ditugu, bat handia eta beste bi txikiagoak. Aurrerantzean hainbat ezkontza ospatuko dituzte gurean, baina krisiaren eragina izan du. Azken urteotan ezkontza kopuruak gutxitu eta ospakizun familiarak ugari egin dira.

Jatetxearen eguneroko mar txan eragina izan du krisiak?

Bai. Krisiaren aurrean prezio eskuragarriagoak dituzten eguneroko menuak eskaintzen ditugu.

Zein da Lasa jatetxearen berezitasuna jatekoari dagokionez?

Gure jatetxean eskaintzen dugun guztia etxean egiten dugu. Etxeko janaria ematen dugu: berdura freskoak erosten ditugu, ogia eta gozogintza etxean egiten dugu...

Gustu ona dutenek berehala antzematen diote etxean egindako janaria dela.



Koldo Lasa

GOIENKARIA

"Lasa jatetxean eskaintzen dugun guztia etxean egiten dugu"

"Aste Santuan itxi egingo dugu; hemengo turismoari bultzada ematen ez badiote, jai daukagu"

Plater berririk egin duzue azkenaldian?

Guregana datozenek ohiko platerak eskatzen dituzte, oro har. Batzuek mokadutxoak eskatzen dituzte, eta jaki gehiago probatzen dituzte. Beste batzuek, lehen eta bigarren platera, eta postrea eskatzen dute.

Aste Santurako ze aurreikuspen dituzu?

Iaz bezala, itxi egingo dugu. Debagoieneko turismoari bultzada ematen ez dioten bitartean, jai daukagu. Hasteko seinaleztapen egokia jarri beharko lukete AP-1 eta A-8 autobideetan.

Ze iritzi daukazu Ferra Adriak hartutako erabakiaren gainean?

Artista bat da, eta hartutako erabakia errespetatzen dut.

Andoni Luis Adurizi ederra gertatu zaio, ezta?

Izugarrria izan da. Astelehenean egin nuen berba harekin, eta lanean jarraitzeko gogoarekin dago, behintzat!

"Jardunaldi gastronomikoak beharrezkoak dira"

Otsailaren 16an hasi zuten Debagoieneko Jardunaldi Gastronomikoen IV. edizioa. Oñatiko plazan 1.000 txerri-pintxo banatu zituzten. Herritarrek harrera ona eman zioten, eta Koldo Lasa gustura dago: "Oraingoari erantzun ona eman diote, baina aurreko hiruretan jende gehiago ibili zen. Dena den, gustura gaude, laugarren edizioa otsailaren egin dugu eta hilabete nahiko txarra izaten da". Halako jardunaldiak inportanteak dira bailarako gastronomia indartzeko, Lasaren esanetan: "Bai. Bezeroak erakartzeko modu ona da. Guk jatetxearen sarreran daukagu informazioa".

Txerriak da laugarren edizioko produktu izarra, eta Lasa jatetxean menu bereziak dituzte. "Txerriak da izarra, baina, oso astuna da, eta beste produktu arinagoekin tartekatzen dugu", dio.

Eski pistetan gora eta behera ibili ziren 58 gazte

Otsailaren 20an Valdezcarayra joan ziren herriko hainbat gazte. Hain justu ere, 58 lagun joan ziren, eskiatzeko arropa jantzi eta eski pistetan gora eta behera ibiltzera.

Udalak antolatutako irteera izan zen eta Udal iturriek aurreratu dutenez, ondo baino hobeto ibili ziren guztiak. Udalak eskiatzera egun bateko beste halako irteerarik antolatuz gero, ziur ia gehienak joango direla berriz ere.



GOIENKARIA

ELGETAKO
espaloia
KAFE ANTZOKIA

Ate joka antzezlan.

Txalo produkzioak
Martxoak 12, 22:30ean





Praktikak atzerrian egingo dituzten hamar ikasleak.

GOIENKARIA

HEZKUNTZA > LANBIDE HEZIKETA

Miguel Altunako 10 ikasle atzerrira, praktikak egitera

Polonia, Ingalaterra, Portugal eta Italiako lantegietan egingo dituzte

Gaitasun teknikoekin batera, autonomia ere lantzen dute atzerrian

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Miguel Altuna Lanbide Heziketa institutuan ohiko bilakatu da ziklo ezberdinetako ikasleak atzerriko enpresetara joatea praktikak egitera. Hala, aurren ere hamar ikasle joango dira atzerrira: bi, Poloniara; bi, Ingalate-

rrara; bi, Portugalera eta lau, Italiara joango dira. Ikasleetako bi dagoeneko joan dira eta gainerakoak laster abiatuko dira.

IRAKASLEAK ERE ATZERRIRA

Praktikok atzerrian egiteak helburu zehatza du: Miguel Altunako ikasleek gaitasun teknikoek gain, hizkuntzak, autonomia eta lan metodo berriak lantzea. Azken baten, "mundura irekitzea", Miguel Altunako arduradunen esanetan.

Ikasleak atzerrira bidali aurretik, irakasle bat joaten da beti, ikasleek praktikak egingo dituzten lantegiak eta bizi izango diren egoitzak egokiak direla ziurtatzeko. Bestalde, ez bakarrik ikasleak, irakasleak ere joaten dira atzerrira ikastera. Hain justu ere,

Erasmus proiektuaren barruan bost irakasle Alemaniara joango dira formazioa jasotzera.

INGELES ESKOLAK

Miguel Altunako arduradunek garbi dute atzerrira joateak eska-

tzen duela ingelesa menderatzea. Hori horrela izan dadin, urratsak egiten dihardute eta Goi Mailako Mekanikako talde batek aurren, lehenengoz, euskara-ingeles ereduak ikasten dihardu. Horren haritik, ikasle horiendako sei beka sortu ditu institutuak ekainean Ingalaterrara joan eta hizkuntzan sakon dezaten. Gainera, ikasurtean barrena mintza-praktika egiteko irakasle amerikarra ere badute.

ATZERRITARRAK HONA

Atzerriko ikasleak ere etortzen dira hemengo enpresetara praktikak egitera. Hori horrela, 2010ean Miguel Altunaren bitartez, Danimarkako bost ikasle, Italiako hiru eta Poloniako bederatzetzi etorriko dira.

DATUA

11

URTE

1999an ekin zion Miguel Altuna institutuak ikasleak praktikak egitera atzerrira bidaltzeari. Orduetik hona, urtero hamar bat ikasle joan izan dira Europako hainbat herrialdetara.

'Trikitibarnetegia' egin dute herriko hainbat trikiti ikasleek

Bergarako Musika Eskolako, Jarduneko Trikiti Eskolako eta Ondarroako eta Arratiako musika eskoletako 25 ikasleek *Trikitibarnetegia* egin zuten otsailaren 26an eta 27an Getariako Askizu auzoan. Barnetegia helburua zen ohiko klaseetatik irten eta ikasleek elkar ezagutzea eta trikitiarekiko motibazioa bultzatzea. Irudian, ikasleetako batzuk barnetegian.



BERGARAKO MUSIKA ESKOLA

AZPIEGITURAK

Soralucek Osintxura gasa eroaten lagunduko du

M.B. > BERGARA

Osintxu auzora gasa eramateko lanak egingo dituzte. Hain justu ere, Campezo Construcción enpresari esleitu dizkio lanok Udalak, bidegorriaren Soraluce-Mekolalde tarteko lanak egingo dituen enpresa berberari.

Horrekin batera, 40.000 euroko gastua ere onartu du Udalak gasa Osintxura eramateko. Bada, Udalarekin batera Soraluce S. Coop. enpresak eta Foru Aldundiak ere lagunduko dute lan hori finantzatzen. Hain justu ere, Soraluce enpresak Udalak besteko kopurua jarriko du, 40.000 euro, eta Foru Aldundiak, berriz, 47.000 euro jarriko ditu.

oharrak

HITZALDIA

> Nafarroa Garaia konkistari buruzko hitzaldia

Udalak Euskal Herriko historiaren gainean antolatutako hitzaldi sortaren barruan, *Nafarroa Garaia konkista. Aitzindariak eta ondorioak*. 1512 hitzaldia egingo du Mikel Lizasok eguaztenez, 19:00etan, udaletxean.

BATZARRA

> Pazkoetan txosna jarri nahi dutenendako batzarra

Gaur, astelehena, izango da, 19:00etan, kultura etxean, Txosna batzordeak deituta.

ZOKKETA

> Ipintza institutuko zoketako hiru otarre emateke daude

Aratusteetan egindako zoketako hiru otarre dituzte oraindik emateko: 83, 496 eta 614 zenbakiei dagozkienak, hain justu. Saria jasotzeko jo Ipintza institutura edo deitu 943 76 31 42 telefono zenbakira, martxoaren 12a baino lehen.

Zumelaga
JATETXEA

Domeka eguerditan zabalik eta astelehenetan itxita

San Antonio 5. BERGARA.
943 76 20 21

Xabier Arakama > Irakaslea

"Txalapartaren oinarrizko doinuak eta erritmoak landuko ditugu ikastaroan"

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Jose de Azpiazu musika eskolak txalaparta ikastaroa antolatu du. Trikizio taldeko Xabier Arakama (Zegama, 1973) izango da irakaslea, iaz bezala. Ikastaroaren gainean eta, oro har, txalapartaren ezaugarri buruz egin digu berba.

Zer landuko duzue ikastaroan?

Izena ematen duten lagunen arabera zehaztuko dut. Iaz ere ikastaroa egin nuen Oñatin, eta pentsatzen dut batzuek errepikatu egingo dutela. Hala bada, bi ikastaro mota egingo nituzke: hasiberriendako oinarrizko ikastaroa eta besteendako, hobekuntza ikastaroa.


Zeintzuk dira txalapartari buruzko oinarrizko ezagupenak?

Makilak ondo erabiltzea eta txalapartaren oinarrizko erritmoak menderatzea. Ikastaroak hortik hasten ditut. Txalapartaren alde erritmikoa kontrolatu behar da, alde melodikoarekin hasteko.

Ze ezberdintasun daude bien artean?

Alde erritmikoa lantzen dugunean, txalaparta tradizionalaren erritmoak, kolpeak lantzen ditugu. Normalean, biko, hiruko edo lau kolpeak. Alegia, guztiok ezagutzen ditugun doinuak; adibidez, ttakun zaharra.

Arlo hori ondo menderatu ondoren, alde melodikoa landu daiteke. Kasu horretan, ondo afinatutako taulekin kantuak egiten ditugu. Edozein kantu jo daiteke txalapartarekin.



Xabier Arakama.

GOIENKARIA

"Oinarrizko doinuak menderatuta, alde melodikoa lantzen dugu afinatutako taulekin"

Melodikora heldu aurretik, errimikotik pasa behar da?

Bai. Oinarrizko doinuak eta mugimenduak kontrolatzea ezinbestekoa da, kantuak egiten hasi aurretik.

Jarraitu beharreko pausoak dira. Hasierako mailatik hasia izaten da onena.

"Txalaparta jotzen hasteko erritmoa kontrolatzen jakitea inportantea da"

Nortzuk gonbidatuko zenituzke ikastarora?

Txalaparta jotzen ikasi nahi duten guztiak, jakina! Era berean, txalapartari buruz jakin-mina dutenak gonbidatuko nituzke. Batzuei instrumentu bitxia iruditzen zaie. Oro har, guztiak gonbidatuko nituzke.

Nola antolatutako duzu ikastaroa?

Bi hilabeteko ikastaroa egingo dugu musika eskolan bertan. Egunak eta ordutegia parte-hartzaileekin adostuko ditut.

Bi orduko eskolak izango dira, eta oso trinkoak egingo ditugu. Txalapartaren gainean ahalik eta gehien ikastea da helburua. Parte-hartzaileak binaka jarriko ditut, eta guztiak maila beretik hasiko diren arren, bikote bakoitzak erritmo eta aurre-rapen ezberdina jarrituko du.

Ezaugarri bereziren bat behar da txalaparta jotzen ikasteko?

Erritmoa kontrolatzea inportantea da. Ez da ezinbestean bete beharreko baldintza, baina erritmikoak diren pertsonak erraztasun handiagoz ikasten dute.

Gainera, bikotekideak duen erritmoa ere oso inportantea da. Azken finean, biek elkarrekin egin beharreko bidea da-eta.

Iaz ere irakasle lanetan ibili zinen Oñatin. Nola gogoratzen duzu esperientzia hura?

Oso-oso aberasgarria izan zen, benetan. Oso gustura egon nintzen eurekin. Urte asko daromatxat txalapartarekin lanean eta eskolak ematen, eta ikastarok beti dira aberasgarriak. Baina Oñatiko ikastaroaren gaineko oroitzapen oso onak ditut. Ea, bada, aurtun ere ondo moldatzen garen.

Non eman daiteke izena?

Interesatuak musika eskolara (943 78 31 74) deitu behar dute, 17:00etatik 20:00etara.



El hombre perplejo. RAFAEL HERRERO

ERAKUSKETA

Argazkilari onenen erretratuak ikusgai

'Argizaiola' erakusketa ikusgai dago kultura etxean hilaren 28ra arte

M.B. > OÑATI

Euskal Herriko argazkilari onenen erretratuak ikusgai daude kultura etxeko erakusketa gelan. *Argizaiola* delako erakusketa ikusgai egongo da hilaren 28ra arte, astelehenetik domekara 18:00etatik 20:00etara. Guztira, 50x40 zentimetroko 34 argazki jarri dituzte.

ERRETRATU ONENAK

Argizaiola Euskal Herriko hainbat lehiaketarako irabazleen arteko lehiaketa da. Hain zuzen ere, argazkilari onenen arteko txapelketa. 2009ko lehiaketan 17 argazkilariren 120 erretratuak parte hartu dute eta irabazlea Rafael Herrero irundarra izan da *El hombre perplejo* argazkiarekin (goiko erretratuak).

Bestalde, epaimahaiak hiru accessit banatu zituen argazkilariren artean: Agustin Gurrutxaga bergararrari *Urbiako zelaia* I delako erretratuarengatik; Javier Pedro Fernandezi *Calas* argazkiarengatik; eta Emilio Muñoz *Cities All* lanarengatik.

ZORTZI LEHIAKETA

Argizaiola lehiaketan Euskal Herriko zortzi argazki lehiaketarako irabazleek parte hartu dute: 42. Bizkaia Internacional; Bergara Hiria 24. Argazki Lehiaketa; Bergara XVI. Kiroi Argazki Lehiaketa; 36. Trofeo Gipuzkoa Internacional; Legazpi Hiria txapelketa 2008; Indalecio Ojanguren 21. Argazki Lehiaketa; XIX. Concurso Fotográfico Ciudad de Irun; eta 44. Beasaingo Saria lehiaketarako irabazleek, hain justu ere.

Haitirako laguntza bidali dute Beasaindik

Parrokiako Misio Taldeak Herman-soloña gobernuz kanpoko erakundeak Oñatin duen lokalean batutako materiala Haitira bidean dago jada. Beasaingo Herriak Elkarlanean GK Eren lokalean bete zituzten bi edukiontzi (janariarekin, arroparekin, higienerako produktuekin eta sendagaiekin) bidali zituzten otsailaren 29an. Argazkian ikusten den moduan lagun talde ederra elkartu zen edukiontziak betetzeko. Euren asmoa da hil bukaeran material gehiago bidaltzea.



JOSE ANTONIO URTEAGA

ARETXABALETA > DIRULAGUNTZAK

Bolinaga eta Lausittako lanak aurrera doaz

Estatu Fondoko bigarren dirulaguntzarekin Udalak egin gura dituen proiektu guztiak, bat izan ezik, onartu dizkio Madrilgo Gobernuak

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Bigarren E Planarekin 718.481 euroko dirulaguntza bideratu du Madrilgo Gobernuak Aretxabaletara. Diru hori hainbat proiektu egiteko erabiliko du Udalak; tartean, Lausitta kaleko etxe txikietako saneamendu lanak eta Bolinagako bidea konpondu.

LANGABEAK HARTZEKO

Lausitta kaletik Galartza auzora bidean, ezker aldean dauden etxetxoetako saneamendu eta ur hornikuntzarako hodiak aldatzeko proiektua eginda dauka Udalak. Gainera, lan horiek bukatzeko inguru guztia txukunduko dute. Ia dirulaguntzaren erdia erabiliko dute lan horiek egiteko: 324.000 euro,

hain zuzen, eta lanek, ondo bidean, hiru hilabete iraungo dute.

Dirulaguntzaren bigarren zati garrantzitsuena Bolinagako bidearen konponketa lanetarako izango da. Hango lurren asentuari eragingo diote lan horiek eta 174.000 euro beharko dituzte horretarako.

Bi lan horietarako lehiaketa deiak egunotan argitaratuko dituzte eta apirilean esleitu. Udalak jakinarazi du, aurrekoan legez, langabeak hartzea lanetarako baloratuko duela.

BAKARRARI EZETZA

Madrilgo Gobernuak onartu ez duen proiektu bakarra izan da Belorrieta auzuneko -Deba ibai alboan- espaloia konpontzea. Horren ordez, udaletxeko tele-

fonogunea eta zerbitzaria aldatuko dituzte. Horrekin batera, hona landuko dituzten beste proiektuak: futbol zelaiko ur beroaren galdara egokitu -50.542 euro-; kaleko farolen eraginkortasun energetikoa hobetu -24.000 euro-; Galartzako ur deposituaren instalazioa hobetu -36.045 euro-; udaletxeko atea aldatu traba arkitektonikoak ezabatzeko -18.000 euro-; eta Gizarte Zerbitzuak proposatutako heziketa tailerrak abian jarri -17.549 euro-.

HIRU IKASTARO

Gizarteratzeko arazoak dituzten herritarrendako izango dira Gizarte Zerbitzuek proposatutako tailerrak; hiru guztira: sukaldaritza (60 ordu); etxeko eta norberaren ekonomia antolatzeko ikastaroa (60 ordu); eta josten ikastekoa (30 ordu). Udalaren asmoa zen otsailean hasi eta urria bitartean egitea ikastarok, baina atzeratu egin dira.

ESKORIATZA > ERAKUSKETA

Banka etikoaren gaineko erakusketa dago Ibarraundin

'Zer da banku etikoa?' berbaldia egunean (19:00) Setem eta Fiareko kideekin

M.A. > ESKORIATZA

Elkarheztzen taldeak antolatuta banka etikoaren gaineko erakusketa dago gaur hasi eta egubakoitzera bitartean Ibarraundi museon (09:00-14:00 eta 17:00-19:00).

INBERTITZEKO BESTE MODU BAT

Banka etikoa zer den eta haren balio eta oinarriak zeintzuk diren azaltzea da erakusketaren helburua. Bankuen eta boterearen arteko harremana; bankuek hegoaldeko herrialdeetan zer egiten duten;

eta ustelkeriarekin eta gerrekin duten lotura aztertzen dute Ibarraundin jarritako paneletan.

Bestalde, finantza etikoak zer diren azaltzen dute: "Aurrezki eta inbertitzeko beste modu bat, etekin sozialak eta ekonomikoak batzen dituena". Diruaren erabilera etikoa bultzatzen duten aurrezki kontu, inbertsio eta gordailuen berri ere ematen dute panelek.

BERBALDIA EGUENEAN

Eguenean (19:00), ostera, berbaldia egingo dute Ibarraundin bertan: *Zer da banku etikoa?* Setem Hego Haizea elkarteko Haritz Azkue (euskaraz) eta Fiare elkarteko Alberto Minguez (gaztelaraz) izango dira horren berri emanango dutenak.

ESKORIATZA > UDALA

Osoko bilkuretako aktak ikusgai daude Interneten

Urtarrileko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak Udalaren webgunean jartzea

M.A. > ESKORIATZA

Udalbatzak egindako osoko bilkuretako aktak jarriko dituzte ikusgai hemendik aurrera Udalaren webgunean -www.eskoria-tza.net-. Aho batez erabaki zuen udalbatzak urtarrilaren 27an egindako osoko bilkuran. Hain zuzen ere, urtarrilean egindako bilkura haren akta dagoeneko ikusgai dago.

DATAREN ARABERA ORDENATUTA

Eskoriatzako udalbatza alkateak, udal-buru legez, eta hamar zinegotzik osatzen dute eta bilkurak, gutxienez, hilean behin egiten dituzte. Ohikoak edo ezohikoak izan daitezke eta herritarrendako zabalik izaten dituzte beti ateak, udal agintariak herriaren gainean hartzen

dituzten erabakiak ezagutzeko. Osoko bilkuretan hartutako erabaki horiekin akta egiten du udal idazkariak eta akta horiek dira, behin udalbatzaren onarpena jasota, ikusgai jarriko dituztenak.

Hala, bada, osoko bilkuretako akte lekua izango dute Udalaren webgunean eta dataren arabera ordenatuta jarriko dituzte.



EUSKALTEGIA

Kupelen bueltan gustura euskaltegikoak

Urtero legez, aurten ere, Leintz udal euskaltegiko irakasle eta ikasleak sagardotegian egon dira. Ikaztegiatiko Begiristain sagardotegiko kupelen inguruan egin zuten txotx eta giro ezin hobean afaldu. Gauari bukaera, ostera, Aretxabaletan eman zioten; bat baino gehiago astelehenean, oraindik ere, biharamuna gainetik kendu ezinik zebilen. "Sanferminetan esaten duten moduan, gutxiago falta da hurrengo urteko irteerarako"; hori esanaz kontsolatu dira guztiak.

IRIARTE

Umeen
denda
•
Helduen
lentzeria



Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

LENIZ

ESKORIATZA



■ Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika

■ Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyekto-reen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxe: 943 71 31 45



Josu Zubikarai Salbador kalean zabaldu berri duen Markel dendan.

L.Z.

ELGETA > MERKATARITZA

Komertzio berria dugu herrian; Markel dendan

Azken bost hilabeteotan hiru komertzio berri zabaldu dira Elgetan; Goikoetxe harategia, Erdiko dendan eta, orain, Markel dendan.

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Duela astebete zabaldu du dendan Salbador kalean Josu Zubikarai eibartarrak. Janari dendan da eta ia denetarik aurkitu daiteke bertan; fruta, barazkiak eta arrain izoztua bereziki. "Ondo doa gauza lehenengo egunotan", esan du Zubikarai. "Akaso nobedadea garelako, baina jende ugari etortzen da dendara", adierazi du. Beste gauza askoren artean izoztutako generoa saltzeko izozkailu handia ipini du. "Gehiago ipintzea da nire asmoa, ikusten nago, baina, jendearekin kostu egiten zaiola izozkailura hurbiltzea. Ikusiko dugu nola doan gauza".

HIRU KOMERTZIO BERRI

Azken bost hilabeteotan hiru komertzio berri zabaldu dira herrian. Imanol Albizuk urriaren 6an zabaldu zuen Goikoetxe harategia Salbador kalean; Dayami Barok abenduaren 4an zabaldu zuen Erdiko dendan Gudarien bidean; eta Josu Zubikarai otsailaren 26an zabaldu du Markel dendan Salbador kalean.

Albiste ona da, izan ere azken boladan komertzio asko itxi dira herrian: Gorrotxategi harategia, Ugari, Beltxongua, Elgeta Piel... Badirudi poliki-poliki merkataritzarako jende berria agertu dela.

"Orain herritarroei dagokigu erantzutea", esan du Oxel Erostarbe alkateak. "Herrian zerbitzuak gura baditugu, babestu egin behar dugu dendan zabaldu dutenek egin duten apustua".

Arraindegia da orain herrian falta dena. Badira bost urte Garbiñe Gorrotxategi itxi zuela, eta saiakera bat baino gehiago egon bada ere, ez dute aurrera egin.

HOTELA SALGAI

San Roke kaleko hotela, berriz, salgai ipini du 26 urteko Paolo Fabris italiarrak. Saltzea edo alokairuan ipintzea da bere asmoa. Hotelak logelak, jatetxea eta taberna ditu.

LEINTZ GATZAGA > OSASUNA

Zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa antolatu du Gizarte Zerbitzuak apiril ingururako

Amazulo elkarteko kideek gidatuta ordu eta erdiko zortzi saio egingo dituzte; zabalik dago izenemate epea martxoaren 30a arte.

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Amazulo elkarteko fisioterapeutekin elkarlanean zoru pelbikoa indartzeko saioak antolatu ditu

Gizarte Zerbitzuak. Data ez dute oraindik zehaztu, baina apiril eta maiatz artean egingo dituzte. Izenemate epea zabalik dago martxoaren 30a arte eta interesatuek udaletxera deitu behar dute izena eta telefonoa emateko. Ikastaroren kostua 30 euro da.

ZORU PELBIKOAREN EZAGUTZA

Emakumeendako dira saioak, batez ere erditu ondoren edo menopausia sasoian daudenendako, histerektomia izan edo pixa galtzen dutenendako eta; oroko-

rean, gorputzaren funtzionamendua ezagutu gura dutenendako. Helburu nagusia zoru pelbiko edo perineoaren funtzioa ezagutzea da, arazoak prebenitzen hasi eta tratamenduaren berri ematea.

"Emakumeen bizi kalitatea hobetzeko oso garrantzitsua" dela perineoaren funtzioa ezagutzea diote Amazuloko fisioterapeutek; hala, argibide teorikoak emango dituzte lehenengo eta praktikak egin gero. Azken saioan zoru pelbikoaren balorazioa egiteko aukera eskainiko dute.

ARAMAIO > EMERGENTZIA PLANA

Emergentziako plana zehaztu dute Udalarekin

112 emergentziako zerbitzuko, Osakidetzako, Gurutze Gorriko eta Aldundiko suhiltzaileetako ordezkariak etorri ziren Aramaiora.

EDU MENDIBIL > ARAMAIO

Aramaio eta Arrasate arteko errepidearen itxiera dela-eta, larrialdietarako plana zehazteko bilera egin zuten aurreko astean udaletxean. Jaurilaritzaren 112 emergentziako zerbitzuko, Osakidetzako, Gurutze Gorriko eta Aldundiko suhiltzaileetako ordezkariak etorri ziren Aramaiora, aurrerantzean horrelakoetan nola jokatu aztertzeko. Besteak beste, zera adostu zuten: anbulantziak Gasteiztik edo Legutiotik etortzea (Untzillan eta Suñan, berriz, Debagoienetik); suhiltzaileen

kasuan, Gasteizkoek izango dute lehentasuna; helikopteroa erabili behar izatekotan Induspe baserriaren ondoan lur hartuko luke; eta Cuatroventos baserri inguruan larrialdiren bat gertatuz gero, basoko unitatea bidaliko lukete. Era berean, Udalak Aramaioko GPS sistema helarazi die larrialdi zerbitzuei.

UDALAREN OHARRA

Udaleko langileek ikastaroa dutela-eta, martxoaren 10ean, 17an eta 24an ez da jendaurreko zerbitzurik egongo 12:00etatik 14:00etara.



Asier Agirre alkatea emergentzietako ordezkariarekin, udaletxean.

GOIENKARIA

ANTZUOLA > JAIK

Mundumirarako lantaldeak osatzeko batzarra dago gaur

Bilera Olanan etxean izango da gaur, astelehena, 18:30ean

gura dute Kultura Saitetik. Izan ere, aurten Antzuolan egingo den Mundumira jaiaren herritarren parte-hartzea nabarmendu gura dute.

MAIATZAREN 29AN ETA 30EAN

Mundumira, munduko kulturaren jaiak, maiatzaren 28an, 29an eta 30ean egingo dute Antzuolan. Aurreko edizioekin alderatuta, formatua zertxobait aldatzea erabaki dute aurten; hala, herri txikietara egokitutako jaiak egingo dute Antzuolan.

Modu horretan, herriko taldeei presentzia eman gura die te Mundumiran. Patxi Olaberria Kultura zinegotziak bere garaian GOITBn azaldu zuen moduan, egubakoitzean (maiatzak 28) herritarrei zuzendutako ekitaldiak prestatuko dituzte. Herriko taldeek aukera izango dute jaialdian parte hartzeko.

Hortaz, hori guztia antolatu, lantaldeak osatu eta jaiak ondo antolatzeko bilerara joateko dei egin dute Udaletik.

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

Mundumira jaiak antolatzeko bilera irekia egingo dute gaur, astelehena, Olanan etxean. 18:30ean da hitzordua, eta Udaleko Kultura Sailak herritarren animatu gura ditu bileran parte har dezaten.

LANTALDEAK OSATU

Bileraren helburua izango da Mundumira jaiak ondo egiteko, elkarte eta herritar guztien parte-hartzea eta laguntza antolatzeko. Hala, bai Mundumira jaialdien aurretik eta baita jaialdian bertan ere lagunduko duten herritarren artean lantaldeak osatuko dituzte.

Gainera, Mundumira jaialdiko programa ere antolatu

Kirola



> **ESKORIATZA**
Liderrarekin 58 eta 64 galdu arren gertu dute lauko finala > 23



> **PIRAGUISMOA**
Emaitza politak lortu dituzte Beti-Bustikoeek Bergarako saioan > 24



> **TXIRRINDULARITZA**
Jon Eizagirre zarautzarrak irabazi du Osintxuko gazte mailako lasterketa > 25

Aloña Mendiko 21 txirrindulari izango dira aurten errepidean

AURKEZPENA

Zapatuan denboraldia hasi eta domekan aurkeztu zituzten taldeak

GARAIPENAK

Lehen helburuak gozatzea eta ikastea izan arren, irabazteko asmoa ere badute

JULEN IRIONDO > OÑATI

Kirol gogorrenen multzoan dago, zalantza barik, txirrindularitza. Eskatzen duen dedikazioagatik, zaindu beharagatik, ibilbideen gogortasunagatik, esfortzu asko eta handiak jarraian eta atsedean hartzeko denbora askorik gabe egin behar izateagatik, tokatzen den eguraldia tokatuta korritze-ara atera behar izateagatik... txirrindularitza ausartendako kirola da.

Eta ausardia dezentekoa erakutsi zuten Aloña Mendiko txirrindulariek denboraldiaren aurkezpen ekitaldian. Zazpi graduko tenperaturarekin soilik, kulot eta maillotak jantzi, eta ohiko argazki saioa egin zuten domekan Torreazoko Etxe-Aundi jatetxearen aurrealdean.

Gogortasunak aurreragorako utzita, baina, bizikletarekin gozatea eta txirrindularitza zer den ikasten joatea izango da Aloña Mendiko ziklisten egitekoa. Txirrindulariak 21 izango dira aurten, lau kategoriatan –alebinak, infantilak, kadeteak eta gazte mai-

lakoak–, mutilak gehienak, baina hiru neska ere bai.

ETXEAN, URTEROKO LASTERKETAK
Pedro Irurzun Txirrindularitza saileko presidentea pozik dago aurten bildu duen taldearekin: "Esango nuke bilakaera positiboa

dela. Infantiletan, adibidez, bizpahiru txirrindulari bakarrik ere izan ditugu, eta aurten zazpi dira".

Helbururik garrantzitsuena garaipenak lortzea ez izan arren, horri ere ez dio muzin egiten presidenteari: "Alebinetan eta infantiletan ilusio handia daukagu, eta kadeteetan ere zerbait jausiko da".

Aurkezpena domekan izan arren, txirrindulariek zapatuan hasi zuten denboraldia. Irurzun pozik zegoen gazteek Osintxun eta kadeteek Beasainen egindakoarekin. Urteko egutegiaren barruan, Aloñak antolatuko ditu aurten ere ohiko lasterketak: apirilean infantilena eta alebinena, gazteen Arantzazuko igoera gero, kadeteen proba Olakuako jaietan eta gazteen eta amateurren San Migeletako sariak.


ESANAK

"Bilakaera positiboa da; infantiletan bizpahiru txirrindulari bakarrik edukitzera heldu ginen, eta aurten zazpi dira"

Pedro Irurzun > Presidentea

"Alebinetan eta infantiletan ilusio handia daukagu, eta kadete mailan ere jausiko da garaipenen bat edo beste"

Pedro Irurzun > Presidentea



Hotzari aurre eginez, bakoitza bere taldeko kulot eta maillotarekin jantzi zen domekan argazkitarako.

JOSETXO ARANTZABAL

Taldeak

ALEBINAK

- > Unai Inza
- > Andoni Guridi
- > Xabier Murgiondo
- > Irati Barrena
- > Ekaitz Txinturreta
- > Eneritz Lizarralde
- > Jon Madina
- > **Zuzendariak:** Joseba Iziar eta Andoni Urteaga
- > **Babeslea:** Lizarralde Kirolak

INFANTILAK

- > Iker Alberdi
- > Jon Arkauz
- > Maider Usandizaga
- > Xabier Aiausti
- > Borja Corrales
- > Beñat Azkoaga
- > Julen Umerez
- > **Zuzendariak:** Joseba Iziar eta Andoni Urteaga
- > **Babeslea:** Lizarralde Kirolak

KADETEAK

- > Iker Arkauz
- > Unai Arabaolaza
- > Mikel Fernandez
- > Iñaki Mugarza
- > Ander Ibarguren
- > **Zuzendariak:** Joseba Luis eta Garikoitz Baños
- > **Babeslea:** Ulma

GAZTE MAILA

- > Iker Mugarza
- > Aitor Umerez
- > **Zuzendariak:** Garikoitz Baños
- > **Babeslea:** Sumofic

HIRUGARREN MAILA > ZALLA-UDA

Merezitako porrota jasota, UDAk ezin izan dio bolada onari eutsi

Defentsan ondo aritu arren, aurrealdean makal aritu ziren aretxabaletarrak

ZALLA
2-0
UDA

Zallaren golak lehiaren azken txanpan heldu ziren; UDAk ez zuen erantzuten jakin

JOKIN BEREZIARTUA > ARETXABALETA
Azken bi jardunaldietan ondo izerditutako garaipenak lortu ostean, bolada onari eusteko asmoz joan zen UDA Lemoara. Baina Zallak merezimendu osoz menderatu zuen talde aretxabaletarra eta Igor Gordobilen mutilek hartutako bide zuzena moztu zuen. Honakoa adierazi zuen

entrenatzaileak partidua amaitu ostean: "Justua da emaitza, eurak guk baino meritu gehiago egin dituzte partidua aurrera ateratzeko". Nahiko parekatuta hasi zen norgehiagoka, baina minutuek aurrera egin ahala, nagusitzen joan zen etxeko taldea. Intensitate gehiago erakutsi zuen Zallak, baita ideiak argiago zituztela ere. Izan ere, Gordobilek adierazi zenez, buruarekin baino bihotzarekin jokatu zuen Aretxabaletak.

GOLAK, AZKEN TXANPAN

Zallaren bi golak bigarren zatian heldu ziren. Lehena 70. minutuan heldu zen eta bigarrena, berriz, azken minutuetan, korner baten

osteko aldaratze bat aprobetxatuta. Lehen gola jaso ostean aurrea egiteko bi aurrelari jarri zituen Gordobilek, baina orduan ere ez zuten arrisku handirik egitea lortu. Beraz, 2-0 eta esku hutsik etxera.

DEFENTSAN HOBETO

Esandako moduan, aurrealdean makal ibili ziren aretxabaletarrak. Atzealdean, berriz, duela jardunaldi batzuk baino hobeto dabil taldea: orain ez dituzte lehen partiduro egiten zituzten akats larriak egiten. Eta hori albiste ona da, Hirugarren Mailan defentsako lan ona ezinbestekoa da-eta.

Bestalde, jarrera aldatu behar dutela uste du Gordobilek: "Azken partiduetan jarrera aldetik ondo zebilen taldea, baina gaur [atzo], ez dakit zergatik, baina ez gara zelaira irten behar den moduan irten, eta horrela ezinezkoa da zerbait positiboa ateratzea".

Azken jardunaldian, Laudioen aurkako lehiaren nekatuta amaitu zuen taldeak, baina fisikoki ondo daudela dio Gordobilek. "Akaso", dio, "faktore psikologikoa da erabat ondo ez dago

ESANAK

"Ez dakit zergatik, baina ez gara zelaira behar den moduan irten eta horrela ezinezkoa da zerbait positiboa ateratzea"

Igor Gordobil > Entrenatzailea

ena eta halako maila batean oso garrantzitsua da mentalki indartsu egotea".

LANEAN JARRAITU BEHAR

16. postuan dago UDA, 33 puntuarekin. Hau da, jaitziera postuetatik puntu bakarrera dago Gordobilen taldea. Jaitzieraren *mamutik* irteteko lanean jarraitu behar dela adierazi du entrenatzaileak, "ez dago besterik". Izan ere, datorren astean Gernikaren bisita jasoko dute aretxabaletarrek. Saillapeneko goiko postuetan daude bizkaitarrak eta oso talde indartsua dute. Baina UDAk dena ematen badu, zaila egingo zaie Ibarrik zerbait ateratzea.



JOSETXO ARANTZABAL

Antzuolak burua altxatu ezinik jarraitzen du

Antzuolak beste porrot bat jaso zuen zapatuan, eta honezkeroko bost dira jarraian; 0 eta 2 galdu zuen Lazkaoen kontra. Lehen gola aldeko falta jaurtiketa bat gaizki atera eta kontraeraso baten jaso zuten. Bigarrena, berriz, lehen zatiko azken minutuan heldu zen. Bigarren zatian hainbat aukera izan zituzten etxekoek, baina baloiak ez zuen sartu nahi izan.

> REALA

Bergarako Realeko zale talde berriak Agorringo tabernan egingo du aurkezpena, eguaztenean (19:30)

Realak zale talde berri baten bultzada izango du. Taldearen aurkezpen ofiziala eguaztenean izango da, 19:30ean, Agorringo tabernan. Oraindik bada taldeko kide egiteko aukera: interesatua Erreki erretegiara joan beharko da, 12:00etatik 15:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. 696 12 40 76 telefonora deituz ere posible da izena ematea.

OHO. ERREGIONALA

Mondraren garaipen inportantea Ordizian

Gari Nuñezen gol bati esker hiru puntuak lortu zituzten zerrajeroek

J.B. > ARRASATE

Astean zehar ondo egindako lanak fruitua eman zuen zapatuan. Izan ere, Mondrak merezimendu osoz irabazi zuen Ordiziaren aurka (0-1). Oso indartsu zelairatu ziren Andoni Azkargortaren mutilak; bosgarren minuturako sei korner izan zituzten alde.

GOLA, 20. MINUTUAN

Partiduko gol bakarra lehen zatiko 20. minutuan iritsi zen. Iker Lopezen pase bikain baten ostean atezainaren aurrean bakarrik geratu zen Gari Nuñez eta ez zuen hutsik egin. Gola sartu ondoren zertxobait erlaxatu ziren zerrajeroak, baina Ordiziak ez zuen hori aprobetxatu. Eta bigarren zatian ere oso indartsu irten zirenez, etxeko taldeak ezin izan zuen ezer egin. Izan ere, 0 eta 2koa gertuago egon zen berdinketa baino; Iker Laspiurrek, adibide, aukera garbi bat huts egin zuen.

Hurrengo jardunaldian igotzeko borrokan dabilen Zarautz etorriko da Mojategira. Lehen itzulian Mondrak hiru puntuak lortu zituen.

OHO. ERREGIONALA

1 eta 2 izan zen garaile Bergara Andoainen

Galtzen hasi ostean partiduari buelta ematea lortu zuten Manu Diazen mutilek

J.B. > BERGARA

Atzetik hasi bazen ere, jaun eta jabe izan zen Bergara Andoainen. Hiru puntu garrantzitsu erdietsi zituzten mahoneroek beheko postuetan dagoen Euskaldunaren aurka. Lehia osoan zehar nagusi izan baziren ere, bigarren zatian iritsi ziren bergararren golak.

Hasieran joko gutxi eta urduritasuna nagusi. Bergara zen baloiaren jabe, baina defentsako akats baten ondorioz etxekoak aurreratu ziren markagailuan (1-0). Beraz, atsedenaldira galtzen joan zen Bergara. Bigarren zatian Jokin Balzategi zelairatu zuen Manu Diazek eta taldeak asko igarri zuen, aurrealdean haize freskoa ekarri zuen-eta aurrelari bergararrak. Hala, behin eta berriz ekitearen saria jaso zuen kanpoko taldeak, Euskaldunako defentsa batek baloia marra gaintetik eskuarekin atera zuenean; penaltia eta kanporatzea. Penaltia Markel Ilzarbek jaurti zuen eta ez zuen hutsik egin. Bigarren gola Iñaki Mujikak egin zuen.

OHO. ERREGIONALA

Hamarrekin nagusitu zen Aloña Ondarroan

Haritz Garmendiak eta Roberto Idigorasek egin zituzten golak

J.B. > OÑATI

Partidu zaila izan zuen Aloñak zapatuan, Hirugarren Mailara igotzeko lehiaren dabilen Aurrera Ondarroaren zelaian jokatu zuen-eta. Bada, oñatiarrek partidu txukuna egin eta garaipena erdietsi zuten, joko gutxi eta kontaktu handiko lehiaren. Pablo Diaz Aloñako entrenatzaileak baloia hanketan izatea eta behetik jokatzeko du gustuko. Zapatuan, baina, ez zen horretarako aukerarik izan eta goiko baloiak eta kontaktu fisikoa izan ziren nagusi Aurrera Ondarroaren zelaian.

Oñatiarren lehen gola penaltiz heldu zen, 70. minutuan. Penaltia argia izan zen eta Haritz Garmendiak sartu zuen. Golaren ostean, Aurrera Ondarroak dezente estutu zuen. Gainera, epaileak bi txartel hori atera zituen Mikel Ibañeri, eta Aloña hamarrekin zela berdindu egin zuten bizkaitarrek. Oñatiarrek aurrera egin zuten; hala ere, eta 80. minutuan Roberto Idigorasek egin zuen 1 eta 2koa, kontraeraso baten osteko aldaratzean.

EMAKUMEZKOAK > LIGAKO BIGARREN FASEA

Azpeitiarren erasoko erreboteak eta hirukoak, erabakigarri

Atsedenaldira arte, etxekoek ondo jokatu eta bederatzi puntuko aldea hartu zuten

Bigarren zatian, kanpokoek defentsa gogortu eta asko asmatu zuten erasoan

ESKORIATZA

58-64

ZURT TABERNA

JULEN IRIONDO > ESKORIATZA

Partidu ederra jokatu zuten zapa-tuan Intxaurtxuetan emakumezkoen ligako aurreneko bi sailkatuek. Eskoriatza bigarrenak aurre egin zion Zurt taberna lider-rari, nahiz eta etxekoek amore eman behar izan zuten azkeneko.

Lehenengo bi laurdenetan oso lan ona egin zuen Eskoriatzak. Talde garaia dute azpeitiarren, eta Eskoriatzako neskek ahalegin berezia egin behar izan zuten errebotea zaintzen; ondo asmatu zuten. Defentsa gogorra ere egin zuten, eta erasoan ondo atara zitzaizkien gauzak: "Uztai inguruan ondo bikoiztu ditugu baloiak, eta mugitu ere ondo egin dugu", zioen partidu amaieran Jasone Zabala Eskoriatzako jokalaria. Bigarren laurdenaren amaieran partzial bikaina egin



Lanak izan zituzten eskoriatzarrek bigarren zatian Azpeitikoek defentsa hausten .

JOSETXO ARANTZABAL

zuen etxeko taldeak, eta atsedenaldira bederatzi puntuko aldearekin joan zen, 22 eta 31: "Sorpresarekin ere izan da guretako, ze euren oso maila ona dute".

BIGARRENA, DESBERDINA

Bigarren zatian, ostera, Eskoriatza baino gehiago izan zen Zurt Taberna. Etxekoek lehenengoan egindako ahaleginak eragindako nekea sumatu zuten. Azpeitiarren defentsa gogorra egin zuten,

epailearen baimenarekin -Eskoriatzakoak asko kexatu ziren-. Etxekoek ez zuten jokaldiak egin asmatzen, buruarekin baino bihotzarekin ari ziren gehiago.

Defentsan, Zurt Tabernakoek errebote ugari lapurtu zizkieten azken bi laurdenetan, eta honen bestez aukera bat baino gehiago izan zituzten jokaldi bakoitzean.

Eta hori primeran aprobetxatu zuten, batez ere kanpoko jaurtiketetan. Hirukoekin min

handia egin zuten azpeitiarren -zazpi zenbakidun Larrañagak 25 puntu egin zituen berak bakarrik-, eta barneraketetan ere asmatu egin zuten.

Jardunaldi honetan galdu arren, falta diren bost partiduetan bakarria irabaztea nahikoa izan daiteke aurten Eskoriatzan jokatu den lau finalerako sailkatzeko. Lehenengo aukera, asteburu honetan bertan, Cafes Aitonaren kantxan.

MAILA AUTONOMIKOA

Aloña ondo nagusitu zitzaien La Salleri

Defentsako lehen zatiko okerrak zuzenduta eta kanpotik asmatuz

J.I. > OÑATI

Aloña Mendik sendo jarraitzen du Maila Autonomikoaren lidertzan, eta garrantzitsuagoa dena, laugarren sailkatuarekiko zuloa egiten ari da -lehenengo biak zuzenean igotzen dira eta hirugarrenak promozioa jokatzen du-. Dagoeneko hiru garaipenera daude Berrio-Otxoa eta Azkartza. Lizuan.comek eta Santurtzik, ostera, gertutik jarraitzen dituzte oñatiarrak: biek irabazi dute asteburuan, eta gorritxoek moduan lau porrot besterik ez dituzte ligan.

La Salleren aurka ondo hasi ziren Xabi Igartuaren mutilak. Uztaipeko jokoan nagusi, laster egin zuten ia hamar puntuko aldea. Zenbait minutuz behera egin zuten ordea, eta Astigarraga-koak aurretik ere jarri ziren markagailuan. Aloñako jokalaria garaiak lotzen saiatu ziren, eta hori aprobetxatu zuten oñatiarren kanpotik erosoago jaurtizteko.

Ondo asmatu zuten, eta atsedenaldira zazpi puntuko aldearekin joan ziren, 40 eta 47. Erasoan ondo ari zen taldea; jasotako puntuak, baina, askotxo ziren aukeran. Bigarren zatian estutu egin zuten defentsan, eta Astigarragakoek ez zieten partiduan sartzeko inongo aukerarik eman. 72 eta 85 irabazi zuten gorriek.

Ondo jokatu eta garaipena eskura izan arren, MUK ezin Baskoniarekin

Gorabehera asko izan zituen markagailuak MU eta Fundacion Baskoniaren arteko partiduan. Erdiko laurdenak etxekoek izan ziren, eta atsedenaldira hamar puntuko aldea zuten (43 eta 33); baina hasiera eta, tamalez, amaiera ere, kanpokoek izan ziren (79 eta 80). MUKoek ondo jokatu zuten, eta fin ibili ziren defentsan zein erasoan. Amaieran, puntu bakarreko aldearekin, bi jaurtiketa libre huts egin zituzten kanpokoek, eta etxekoek eduki zuten azken jabetza. Ez zuten, ordea, saskiratzen asmatu.



JOSETXO ARANTZABAL

> GIPUZKOAKO TXAP.

Soraluce BKEk ez zuen batere aukerarik izan Astigarragan

Goiko postuetan borrokan ari da Astigarraga -sei partidu bakarrik galdu ditu-; sailkapeneko azkena da, ostera, Soraluce BKE -hiru baino ez ditu irabazi-. Eta bien arteko lehian, sorpresarik ez.

Hasieratik hartu zuen aldea markagailuan Astigarragak, eta hirugarren laurdenean lortu zuen partidua behin betiko haustea, hemezortzi puntuko aldearekin.

Astigarragak erakutsi zuen talde sendoa eta gogorra dela, eta batez ere errebotean egin zieten min handia Soraluce BKEkoek. 61 eta 50 amaitu zen partidua.

ESKUBALOIA > EUSKADIKO TXAPELKETA

Egiaren aurkako 'finala' noiz iritsiko, huts egin ezineko partiduan sendo Arrasatekoak

Lehenengo zatian txukun ibili ziren, baina bigarrenean nahastu egin zen dena

Kantxara lo atera eta kontzentrazio barik jokatu arren, emaitzari eutsi egin zioten

SUCESORES DE AGIRRE

32-36

FORD MUGARRI

JULEN IRIONDO > BERGARA

Erabakigarria izatekoa zen Egiaren kontrakoa atzeratuta, partidu horretara -jokatzen denean jokatzen dela- gutxienez lehen-

go egoera berean iristea da Ford Mugarrikoen gogoia, eta horretarako ezinbestekoa da bitarteko lehietan hutsik ez egitea. Aurrenekoan, behintzat, lortu dute arrasatearrek.

Partidu erraza izan zuten zapatuan Sucosores de Agirrerren kantxan. Gasteiztarrek bi jokalaririk garrantzitsu falta zituzten, eta gogotik igarri zuten hori.

Edu Orgazen mutilak, berriz, defentsako lanean ondo moldatu ziren, nahiz eta erasoan ara-

zo gehiago eduki eta aukera argi-tan huts egin. Dena dela, oro har, Ford Mugarrikoen lehenengo zatia txukuna izan zela esan daiteke, eta alde politarekin joan ziren atsedenaldira -13 eta 18-, nahiz eta dozena bat goleko errenda ere eduki zezaketen.

BIGARREN ZATI ARRAROA

Bigarren zatian, baina, asko aldrebestu zen partidua. Gasteiztarrek jokalaririk gutxi eta motibazio gutxiago zuten, baina Arra-

satekoak ere hangoen gaitz berak kutsatu zituen. Lo atera ziren kantxara, errazegi ikusi zuten partidua eta bi golera jartzea ere lortu zuten arabarrek. Dena dela, ez zuten debagoiendarren garaipena arriskuan jarri.

Partidua aldrebeste horretan, epaileek ere jarri zuten euren alea; izan ere, denbora batez geldi eduki zuten partidua, euren erabakiengatik sutsuki protesta egiten ari zen zale bat harmailetatik botatzea lortu zuten arte. Eta kontu hauek ere mesederik ez, jokalariek galdutako kontzentrazioa berreskuratu zezaten.

Kontuak kontu, azkenean 32 eta 36 irabazi zuen Edu Orgazen taldeak. Egiak ere garaipena lortu du asteburuan; beraz, arrasatearrek donostiarrengandik bi puntura jarraitzen dute, igoera fasea jokatzeke aukera ematen duen bigarren posturako borrokan. Egunotan erabakiko da atzeratutako elkarren arteko partidu noiz jokatuko den.



Gogotik saiatu arren, eskoriatzarrek ez zuten lortu kanpokoaren defentsa apurtzea.

JOSETXO ARANTZABAL

ARETO FUTBOLA > EUSKAL LIGA

Arlo guztietan nagusituta, puntuak Villabonara

Etxekoek ahalegin handia egin arren, kanpokoak bikain ibili ziren defentsan, eta eraginkor erasoan

J.I. > ESKORIATZA

Eskoriatza baino gehiago izan zen zapatuan Irish Pub. Lehenengo zatia, dena den, nahikoa parekatua izan zen. Azken bost minutuetan, baina, defentsan behera egin zuten etxekoek, eta halako batean kanpokoek bizkarra hartu eta gola egin zuten.

Bigarren zatian ez zuten lortu eskoriatzarrek arriskua sortzea. Villabonakoek ondo egiten zituzten defentsako laguntzak -euren atezainak ere partidu ona jokatu zuen-, eta erasoan bigarren gola egitea ere lortu zuten. Neurketako azken lau minutue-

tan, atezaina jokalaririk bihurtuta jokatu zuen Eskoriatzak. Baina etxekoek mesederako izan ez, eta kanpokoek aprobetxatu zuten beste bi gol egiteko. Eskoriatzakoek ahalegina egin zuten, baina aurkariak partidu handia jokatu zuen, intentsitate askorekin eta kontraerasoan zital.

Porrotarekin hirugarren postutik puntu bakarrera jartzeko aukera galdu du Eskoriatzak; baina borrokan jarraitzeko moduan da datozen partiduetan, Lagun Onaken aurka atzeratutakoan aurrena eta Durangoren kantxan gero.

PIRAGUISMOA > GIPUZKOAKO ESKOLA ARTEKO JOLASAK

Garaipenik ez, baina postu onak bai Beti-Bustikoek

Lau bigarren postu, hirugarren bat eta laugarren bat ibarreko palistendako

ta parean. Ohi bezala, korrontearen kontra pasa behar izan zituzten batzuk, eta ibaiaren noranzkoan besteak. Ukitutako ate bakoitzarengatik bi segundoko zigorra jaso zuten, eta pasa gabe utzitakoengatik 50ekoa.

J.I. > BERGARA

Etxekoekin batera, Pasai Donibaneko Koxtape, Irungo Santiagotarrak eta Atletiko San Sebastian klubetako palistek hartu zuten parte Gipuzkoako txapelketako saioan, 10 eta 12 urte arteko 85 kirolaririk guztira.

Donostiarrek eta Irungoek ekarri zuten palista kopuru handiena, eta azken sailkapenean ere bi klubok batu zituzten puntu gehien. Beti-Busti hirugarren geratu zen.

Neska-mutikoen hamahiru atedun ibilbidea bete behar izan zuten Deba ibaian, Labegaraie-

Infantiletan eta alebinetan, eta kayakean eta bakarkako eta binakako kanoetan jardun zuten palistek. Beti-Bustiren emaitzei dagokienez, Gorka Markezek bitan egin zuen bigarren, eta garaipenetik koska bakarrera geratu ziren Leire Ugalde eta Asier Gonzalez arrasatearra ere. Ana Usabiagak hirugarren egin zuen, eta Jokin Labaienek laugarren. Pozik geratu ziren emaitzekin.

Eskola arteko jolasei bi saio falta zaizkie, biak Irunen: aurrena ohikoa, bigarrena Gipuzkoako Txapelketa.



Labegaraiea parean, 85 palista ibili ziren lehian.

JOSETXO ARANTZABAL

ESKORIATZA

0-4

IRISH PUB

TXIRRINDULARITZA > SORALUZE E. KOOP. SARI NAGUSIA

Etxeko bi aurrean sartu arren, Eizagirre zarauztarra nagusi

Sumoficeko Aristik eta Retolazak ez zuten ihesaldia hartu, baina geroago aurrera egin eta irabazteko jokoan sartu ziren; seigarren eta zazpigarren egin zuten azkenean

JULEN IRIONDO > BERGARA

Osintxuko lasterketarekin eman diote aurten hasiera Gipuzkoako gazte mailako egutegiari. Atera 90 txirrindulari egin ziren, eta 87 kilometroko ibilbide laua bete behar izan zuten: bina joan-etorri Bergararik eta Oñatik Zubillaga auzotik.


Hasieratik izan ziren ihesaldi ahaleginak. Baina taldetxo ona Bergararik egin beharreko biga-

rrren joan-etorrian sortu zen. Hamar txirrindularik jo zuten orduan aurrera; Zubillagara aurrenekoz iristerako, ordea, beste lau txirrindularik utzi zuten tropela, tartean Sumoficeko Mikel Aristik eta Unai Retolazak. Lokatzakoek eta beste biek lortu zuten aurrekoekin bat egitea, eta hamalaukoak minututik gorako aldea zuen Osintxutik azkenurreko aldiz pasatzerakoan. Argi zegoen garaipenak euren artean behar zuela.

Ihesaldiko kide gehienek ondo jardun zuten elkarlanean; helmugatik gertu, saihebidetako azken aldapan, soka tenkatu zuten batzuek, eta indarrez justuen zeudenak irabazteko aukera barik geratu ziren. Gainera, koen artean –eta hor ziren etxeko biak–, esprintean erabaki zen lasterketa. Galdiano taldeko Jon Eizagirre zarauztarra izan zen bizkorrena, Caja Ruraleko Ander Altuna eta Zuyanoko Joel Islaren aurretik. Aristi eta Retolaza seigarren eta zazpigarren izan ziren, irabazlearen denboran. Hain justu, Sumoficendako izan zen taldekako sailkapena. Tropela bi minutura sartu zen helmugan.



Jon Eizagirrek mendean hartu zituen ihesaldiko kideak Osintxuko helmugan. J.I.



JOSETXO ARANTZABAL

Lau txapel Gipuzkoako eskola artekoan

Bergarako Shotokan klubeko kideek lan polita egin zuten Labegarietan jokaturako karate txapelketan. Katan, Ekine Garciak eta Maddi Iñarrak lortu zuten garaipena; kumitean, bestetik, Irati Rodriguezek eta Jon Barraganek. Shotokaneko 25 kiderekin batera, bailarako eta kanpoko karatekek ere hartu zuten parte, ehun inguruk denera.

Futbola

3. MAILA

Sailkapena	Punt.	Jokat.
1. Amorebieta	59	29
2. Real Sociedad B	56	29
3. Portugalete	47	29
4. Zamudio	47	29
5. Elgoibar	47	29
6. Gernika	45	29
7. Beasain	44	29
8. Amurrio	44	29
9. Durango	43	29
10. Basconia	42	29
11. Arenas Getxo	39	29
12. Zalla	38	29
13. Leioa	37	29
14. Lagun Onak	36	29
15. Santurtzi	35	29
16. Aretxabaleta	33	29
17. Laudio	32	29
18. Eibar B	32	29
19. Retuerto Sport	24	29
20. Salvatierra	9	29

Emaitzak	
Santurtzi-Retuerto	0-0
Arenas-Amorebieta	1-1
Eibar-Real Sociedad B	0-3
Zalla-Aretxabaleta	2-0
Gernika-Salvatierra	5-0
Beasain-Amurrio	2-2
Durango-Portugalete	1-1
Basconia-Elgoibar	2-1
Lagun Onak-Zamudio	1-2
Laudio-Leioa	3-0

Hurrengoak	
Aloña Mendi-Berio	
Bergara-Ondarroa	
Mondra-Zarauz	

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

Sailkapena	Punt.	Jokat.
1. Pasajes	51	23
2. Zarautz	48	23
3. Aurrera Ondarroa	44	23
4. Tolosa	39	23
5. Idiazabal	37	23
6. Oiartzun	35	24
7. Aloña Mendi	33	23
8. Bergara	32	23
9. Ordizia	31	23
10. Berio	30	23
11. Trintxerpe	29	23
12. Mondra	29	22
13. Hernani	27	23
14. Hondarribia	25	23
15. EHU Vasconia	24	24
16. Euskalduna	23	23
17. Beti Gazte	19	24
18. Real Union	17	23

Emaitzak	
Berio-Beti Gazte	3-3
Ondarroa-Aloña Mendi	1-2
Euskalduna-Bergara	1-2
Trintxerpe-Tolosa	1-2
EHU Vasconia-Hondarribia	1-1
Idiazabal-Pasajes	2-2
Zarauz-Real Union	1-0
Ordizia-Mondra	0-1
Hernani-Oiartzun	2-2

Hurrengoak	
Aloña Mendi-Berio	
Bergara-Ondarroa	
Mondra-Zarauz	

BESTE KATEGORIAK

GAZTEEN LIGA NAZIONALA	
Aretxabaleta-Leioa	0-2

GAZTEEN EUSKAL LIGA	
Bergara-San Marcial	0-1

ERREGIONAL PREFERENTEA	
Antzuola-Lazkao	0-2
Orioko-Aretxabaleta	0-0

LEHEN ERREGIONALA, IGOERA	
Oiartzun-Mondra B	1-1

LEHEN ERREGIONALA, KOPA	
UDA Arizmendi-Segura	1-0

GAZTEEN OHOREZKO MAILA, KOPA	
Billabona-Mondra	1-2
Beti Gazte-Aloña Mendi	3-5

GAZTEEN LEHEN MAILA, IGOERA FASEA	
Behobia-Aretxabaleta Arizmendi	3-3

GAZTEEN LEHEN MAILA, KOPA	
Arizmendi	Atsedena
Bergara-Urki	4-0

KADETEEN OHOREZKO MAILA, IGOERA	
R.Sociedad B-Aretxabaleta Arizmendi	5-0
Kostkas-Bergara	3-2

EMAKUMEZKOEN IGOERA FASEA	
Allerru-Mondra	0-7
Arizmendi-Intxaurdi	1-2

EMAKUMEZKOAK, KOPA	
Aloña Mendi-Anaitasuna	1-3
Bergara	Atsedena

Eskubaloia

MAILAZ MAILA

EUSKADIKO SENIORRAK, GIZON.	
Suc. Agirre-F. Mugarrri	32-36
EUSKADIKO SENIORRAK, EMAKUME.	
Askartza-Verkol Aloña	28-24
LEHEN TERRITORIAL MAILA	
Egia-Soraluze BKE	28-29
Elgoibar-Izarraitz Aloña Mendi	39-24
BIGARREN TERRITORIALA	
Rotula Studio-Arrasate	37-28.
FEDERAZIO SARIA, GAZTEAK	
Usurbil-Bergara Soraluze	33-15
Aloña Mendi-Elgoibar	34-34
FEDERAZIO SARIA, GAZTE NESKAK	
Bergara Soraluze-Verkol Aloña	11-34
Arrasate-Ehariaidea	7-29
ALDUNDIKO TORNEOA, KADETEAK	
Bergara Soraluze-Irungo gaztiak	48-28
Ereintza-Arrasate	24-22

Saskibaloia

MAILAZ MAILA

LEHENENGO MAILA	
MU-Fundacion Baskonia	79-80
SENIOR AUTONOMIKOA	
La Salle-Aloña Mendi	72-85
GIPUZKOAKO TXAPELKETA	
Astigarraga-Soraluze BKE	61-50
GIPUZKOAKO TXAPELKETA, 2. MAILA	
Aloña Mendi-Erroibide	50-40
MU-Errotaundi	51-34
DKS-Soraluze BKE B	57-48
SENIOR EMAKUMEZKOAK	
Eskoriatza-Zurt taberna	58-64
GAZTEAK, EUSKAL LIGA	
Easo-MU	97-50
GAZTEAK, PARTEHARTZEA	
Soraluze BKE-Internacional	37-43
MU B-Zast Zarautz	30-33

Harmailatik

Debagoieneko kirola GOITBn
Astelehenero 22:15ean.



BERGARA

Baloia hanketan, barrea ahoan; horrela aritu ziren gaztetxoak

BI TXANDA Zapatuko saioa bi txandatan banatu zen; lehendabizikoa 9:30ean, eta bigarrena 10:30ean

UME GUTXI Ekintza ugari zeuden zapatuan eta horregatik ume gutxi agertu ziren Eskola Kiroleko hitzordura

FUTBOLEAN POZIK Futbola dute gustuko gaztetxo gehienek eta hori argi gelditu zen Ipintzako futbol zelaietan

NAROA ODRIOZOLA > BERGARA

Messi, Iniesta, Torres edo Aramburu bezalako futbol jokalariek dardarka has daitezke, geure gaztetxoek laster hartuko diete eta txanda. Kirolen artean erregea da futbola bailarako umeentzat eta horrela demonstratu zuten zapatuko Eskola Kirola saioan. Baloia ostikoak ematen gozatu zuten umeek. Ikuskizun ederra eskaini zuten gaztetxoek, eta golak ez ziren falta izan.

Ez ginen izan Anoretan, ezta Camp Nouen ere, baina umeek giroa alaitzea lortu zuten. Ipintzako futbol zelaietan elkartu ziren gaztetxoak. 09:30etako txandan ume gutxi azaldu ziren; izan ere, beste zenbait ekintza antolatu zituzten egun berbererako: zuhaitz eguna, adibidez. Lehendabiziko txanda horretan, Antzuola B, San Martin D, Aranzadi eta Mariaren Lagundia taldeak izan ziren. Zenbait taldeetan gaztetxoak faltan zeudenez, taldeak nahastuz jokatu zuten. Aurreneko txandan ez bezala, bigarren txandan, talde gehienak osatuak zeuden. San Martin B, Elgeta, San Martin A eta Antzuola A izan ziren taldeak.

KIROLAREKIN GOZATUZ

Eskola Kirola egiteko goizean goiz esnatzen dira gaztetxoak zapatuetan; hala ere, gogoz aritzen dira. Hotza izan ohi da umeen etsaia eta horregatik jokatzeko hasi baino lehen, beroketak egiten dituzte. Kirola egin ez ezik, lagunekin egoteko aukera ere izaten dute gaztetxoek.



Antzuola B. Zutik: Jon, Helene, Josune, Mikel. Makurtuta: Aritz, Toheed, Facundo, Kepa eta Jon.



San Martin D. Zutik: Xabi, Jon eta Alex. Makurtuta: Olatz



Elgeta. Zutik: Iruene, Etor, Javi, Mikel, Aitor eta Ainara. Makurtuta: Gari, Andoni, Ione, Veronica eta Unai.



Mariaren Lagundia. Eserita: Yuriko, Aitor, Alex, Alazne eta Jackson. Makurtuta: Jon, Lajus, Xabier eta Asier.

ZER DA GEHIEN GUSTATZEN ZAIZUENA ESKOLA KIROLETIK?



Alex
Mariaren Lagundia

Alex gustura aritu zen zapatuko Eskola Kirola saioan, izan ere futbola du kirolik gogokoena. Lehenengoa izan zen Ipintzako futbol zelaira heltzen, eta futbolekin jokatzeko hasi aurretik, hitz egin genuen gaztetxoarekin.



Olatz
San Martin D

Egindako atsedendaldi laburrean elkartu ginen Olatzekin. Gaztetxoak honakoa esan zigun: "Beisbola eta igeriketa gustatzen zaizkit gehien". Hala ere, igeriketa aurrean oraindik ez dutela egin adierazi zigun Olatzek.



Unai eta Iker
Aranzadi

Aranzadi taldeko bakarrak izan ziren Unai eta Iker zapatuan. Kirolariak dira gaztetxoak, izan ere, esan zigutenez, Unai igeriketa egiten du eta Ikerrek karatea. Eskola Kiroletik eskubaloia eta futbola dute gogokoena.



Alazne
Mariaren Lagundia

Mariaren Lagundia taldekoa da Alazne eta bere taldeak jokatzeko hasi aurretik hitz egin genuen gaztetxoarekin. Adierazi zigunez, futbola ez zaio asko gustatzen eta bere kirolik gustukoena eskubaloia da.



Miren eta Miren
San Martin A

10:30etako txanda zuten bi gaztetxo hauek. Ipintzako futbol zelaira heldu bezain laster hitz egin genuen eurekin. Esan zigutenez, biak futbola dute gogokoena; hala ere, beste kirolerik ere gustura aritzen dira.

Sergio Gartzia > Aloña Mendi atletismo taldeko korrikalaria

"Lesioa gainditu ondoren, ez nuen espero urtea horren ondo hastea"

XABIER URTZELAI > OÑATI

Sergio Gartzia (Oñati, 1989) Coruña izan da asteburuan, Aloña mendiko beste bi ordezkarekin batera -Mari Sol Ramos eta Jose Luis Gartzia- Espainiako Kros Txapelketan esku hartzen. Oñatikoak ondo hasi du urtea, pista estalian promesa mailako Gipuzkoako Txapelketan urtea irabazi du-eta. Bolada on horri jarraipena eman nahi dio.

Hasteko, zer moduz joan zen atzoko proba?

Pozik nago egindako lanarekin. 200 lasterkari inguruk hartu genuen parte eta helmugan 40. postuan sartu nintzen. Azken kilometroetan beheralditxo bat izan nuen eta ordura arteko erritmoa zertxobait jaitsi behar izan nuen. Hala ere, beheralditxoa izan nuenean taldekide dudan Jose Luis Gartziarekin egin nuen bat eta haren erritmoa jarraituz amaitu nuen lasterketa.

Zer nabarmenduko zenuke lasterketatik?

Kostaldean zenez, haizea izan zen protagonista nagusia. Kontran edo alde, haizera moldatu behar izan ginen lasterkariok.

Bestalde, aldapa gogorak igo behar izan genituen eta amaierarako hanketan nekea nabaritu nuen. Edozelan ere, ez zen ezusteko handirik eman eta espero moduan egin nuen lasterketa.

Asteburuko hitzordua alde batera utzita. Zer dela-eta aukeratu zenuen atletismoa?

Aitak gertutik jarraitu izan du atletismoa, bera ere korrika ibiltzen da-eta. Gaztetan ikastolako lasterketa batean parte hartzeraz animatu ninduen, eta nahiko ondo moldatu nintzela ikusita, ordutik aurrera animatu egin nintzen. Dagoeneko sei urte daramatzat Aloña Mendiko atletismo sailean.

Talde polita duzue Oñatin, nahiz eta kirol hori egiteko erraztasunik ez izan.

Aurten 26-30 atleta inguru egongo gara klubean, eta zenbaterako polita da, bai. Gainera, infantil mailan gaztetxo mordoak dator atletismoan ibiltzeko gogoz, eta horrek poztu egiten nau.

Bestalde, egia da herrian ez dugula atletismo pistarik, eta ez dela normala horrelako zaletasuna egotea. Kanposantu inguruan jarri nahi dituzte pista berriak, baina taldean behin eta berriro adierazi dugu guretako oso urrun geratzen dela, kiroldegitik, batez ere.

Zelan entrenatzen zarete?

Normalean kalean ibiltzen gara korrika, edo Zubikoako gimnasioan, bestela. Oñatin zehar lau kilometro inguruko zirkuitu



Sergio, aste barruan, Zubikoako kiroldegi ondoan.

XABIER URTZELAI

PISTARIK EZ

"Herri barruan lau kilometroko zirkuitu modukoa dugu, eta auto artean entrenatzen gara"

KIROL ZORROTZA

"Atletismoari eskatu baino eskaini egin behar zaio, batez ere lana"

TALDEA

"Klubean 26-30 atleta inguru gaude, eta infantil mailan gazte mordoak etorri zaigu; horrek poztu egiten nau"

Zer eskatzen diozu atletismoari?

Atletismoari gauza gutxi eskatzen dizkiot, eskatu baino eskaini egin behar zaio, batez ere lana. Hau zaletasuna da niretako, gozatu egiten dut entrenatzen, eta baita lasterketetara joaten ere. Jende asko ezagutu dut atletismoari eskerrak, eta esaterako, ondo ibiliz gero urtean behin -Aste Santuan- federazioak deituta astebeteko egonaldia egiten dugu, eta ederto ibiltzen gara.

Infantiletatik gazte mailara arteko atletak Saloura joaten dira; gazte mailatik promesetara Benicassimera, eta hortik gorakoak Segoviara. Iaz ez nintzen egon lesionatuta nengoelako, baina bestela, kategoria guztietan egin izan dut astebeteko egonaldi hori.

Entrenamendu saio bereziak egiten ditugu aste horretan, leku askotako jendearrekin, eta asko ikasten da.

Gipuzkoako txapela jantzi duzu, lesio bat gainditu ostean.

Bai, neurri batean sorpresa izan da niretako, denboraldi hasieran ez nuelako batere sentsazio onik. Ez nintzen ondo sentitzen, iaz ere periostitis arazoekin ibili nintzelako. Plantilla berezi batzuekin, baina, poliki-poliki atzean utzi ditut arazo horiek.

Eta, ikasketak ere atletismo bideratu nahi dituzu.

Mekanizazio ikasketak egin ditut, baina datorren urtean asmoa da kirolarekin lotura duen zerbait ikastea. Gustura ibiltzen naiz gazteekin, eta hortik bideratu nahi dut etorkizuna.

Hurrengo proba, noiz?

Aste bukaeran Ormaiztegin izango den lasterketa herrikoiean parte hartzeko asmoa dut. Orain, beraz, ondo deskantsatzea da nire asmoa, aste bukararako gertu egoteko.



Aita eta semea elkarrekin gozaten.

MALYBELEN

AITATASUNA > KOLABORAZIOA

Aita baten seme-alabekiko maitasunak baduelako aski indar

Gizon eredu hegemoniko zaharrak aitatasunari gutxi lagundu diola uste du Iñaki Kasaresek, baina, hala ere, "aita onak" direla aldarrikatzen du

OIHANA ELORZA > ARRASATE

"Aita onak gara, zailtasunak ditugun arren", dio Iñaki Kasaresek aitatasunari buruz idatzi duen bigarren artikuluan.

AITA ONAK

"Gero eta gizon gehiago ari gara lotzen aitatasunari. Gure seme-alabekin gozatu nahi dugu, haiekin jostatu, komunikatu, lagun-

du, apoiatu... haien bizitzetan present egon nahi dugu, eta geure bizitzetako parte ezinbesteko nahi ditugu. Gero eta aita gehiago jabe gara orain artean izan dugun ereduak, iraganeko eredu horrek, ez gaituela betetzen. Bestelako harremana nahi dugu geure seme-alabekin, bai eta seme-alaben amekin ere. Guztizko aita nahi dugu izan askok, super-aita", dio Kasaresek. "Aita gisan ere perfektuak izan behar ei dugu, baina hori irreal da. Aita askori entzun diegu, konfiantzan, "Ez nauk iristen", "Desastre hutsa nauk", "munduko aitarik kaske-rena nauk ni", eta halakoak.

Gezur ustelak. Perfekturik ez da, eta ez da izango, ezta aitatasunean ere. Ez da beharrezkoa, gainera. Dagoeneko aita onak gara. Gure seme-alabak maite-

maite ditugu, eta erabateko konpromisoa izan nahi dugu haien alde. Haietzako onena nahi dugu", jarraitu du.

Gizon eredu hegemoniko zaharrak aitatasunari gutxi lagundu diola uste du Iñaki Kasaresek santurtziarrak. "Agintzen eta nagusitzen irakatsi digute, ez negoziatzen. Indarkeria erabiltzen irakatsi digute arazoak *konpontzeko*, ez berba egiten edo entzuten... Emozioei muzin egin diezaiegun hezi gaituzte, ez enpatikoak edo ulerberak izateko. Zurrinak izan behar genuela adierazi digute alde edo molde, eta ez malguak". "Eta ikasi edo barneratu ditugun *zabor* horiek, ikasi edo barneratu ditugun bezalaxe, desikasi ditzakegu", dio Kasaresek, "aitaren maitasunak baduelako aski indar".

OSASUNA > PREBENTZIOA

Oporretan eszedentzia hartzearen dirulaguntzak

Horrez gain, Jaurlearitzaren dekretuak parekatu egingo ditu aiten eta amen laguntzak

O.E. > ARRASATE

Eusko Jaurlearitzaren Lan eta Gizarte Gaietan Sailak diruz lagunduko die seme-alaben opor garaian eszedentzia hartzen duten gurasoei, eta familia eta lana uztartzeko laguntzen alorrean gizonzkoiei ezarritzen zitzaizkien diskriminazio positiboa kendu egingo du. Seme-alabak dituzten familien dako eta lana eta familia uztartzeko laguntzeko dirulaguntzak onartu ditu Jaurlearitzak. Dirulaguntza horien jarraipena dekretu bidez onartuko du Eus-

ko Jaurlearitzak uda baino lehen, eta bertan zehaztuko dituzte aldaketak. Dekretu berriaren bitartez, Eusko Jaurlearitzak 59 egun baino epe motzagoko eszedentziei eskainiko die laguntza, betiere haurrek oporretan egoteagatik eskolara joan behar ez dutenean hartzen badira.

Beste berrikuntza bat da aitei eta amei zuzendutako laguntzak parekatu egingo dituztela, agerian geratu delako aitek ez direla animatu eszedentziak edo lanordu murrizketak hartzera.



Umeak hondartzaz eta itsasoaz disfrutatzen.

PABLODF

> IKASTETXEAK

EAEko kudeaketa zuzeneko eskola jangeletan greba egingo dute bihar eta eguenean

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxeetako jangeletako langileek mobilizazioak gogortuko dituzte hurrengo hilabeteetan. Hala iragarri dute LAB, ELA, COOO eta UGT sindikatuetako ordezkariak. Noiz arte zehaztu gabe, astean bi egunean greba egiteko dei egin dute kudeaketa zuzeneko jangeletan. Martxoaren 9an eta 11n izango dira aurreneko lanuzteak; gainerako asteetako plana astez aste iragarriko dute.

Urtebete baino gehiago igaro da kudeaketa zuzeneko jangeletan gatazka hasi zenetik. Geroztik, sektoreko 3.500 langileek bederatzigarren greba egin dituzte, eta, sindikatuen arabera, deialdiek erantzun handia izan dute.



Ume bat lo.

RAUL A.

OSASUNA > SIESTA

Informazio berrirako tokia uzten die siestak umeei

O.E. > ARRASATE

Nekea arintzeaz gain, epe motzeko oroimena pilatzen laguntzen du siestak eta informazio berriarendako tokia uzten du.

1 eta 3 urte arteko umeen siestak onura bat baino gehiago du euren hazte etapan. Hiperaktibitatea eta antsietatea murrizten

du siestak eta oroimena lantzen laguntzen die. Umeen siesta ikasketaren prozesuaren parte dela ondorioztatu du AEBetako Arizonako unibertsitateko psikologia departamentuko ikerlari talde batek.

Umeak hazten doazen heinean, ordea, normala izaten da siesta egiteko trabak jartzea, siesta

egin gura ez dutela esatea. Siesta egitea onuragarria izan arren, ez da komeni umea horretara behartzea. Horrelakoetan, hobe da gauza lasaiak egitea; ipuinak irakurri edo jolas lasaiak egitea, adibidez. Izan ere, arratsaldean lo egin edo lasai pasatzen badute, gaueko loa hobe izaten laguntzen die; aldiz, larregi nekutzen badira, arazoak izan ditzakete gauean lo egiteko. AEBetako Berkeleyko unibertsitateko ikerketa batek dio gau txar batek %40 txikitzen duela informazio berria jasotzeko ahalmena.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, zatoz gure webgunera



guraso.com



> **ANARI**
Azkoitiarrak emanaldi itzela egin zuen Amaia Udal Antzokian > 30



> **NEVER SURRENDER**
Gaztetxea goraino bete zuten arrasatearrek disko aurkezpenean > 30



> **MUNDUKIDE**
Oreka Tx-ek borobildu zuten fundazioaren 10. urteurreneko jaia > 32



Herriko abesbatza izan zuten laguntzaile atzo Torresoroan emandako kontzertuan.

TXOMIN MADINA

Antzuolako Txistulari Taldea, sasoiaren eta aurrera begira

IA BETETA Urteroko kontzertua eman zuten atzo eguerdian Torresoroan

OMENALDIA Bittor Arbulu zuzendariak, lore-sorta jaso zuen taldekideen partetik, hauek zuzentzen "duen pazientziagatik"

TXOMIN MADINA > ANTZUOLA

Bigarren urtez, Torresoroan egin zuen atzo urteroko kontzertua Antzuolako Txistulari Taldeak; arrakasta handiz gainera: ia ez zen eserlekurik libre geratu. Herriko abesbatza eta Bergarako Banda metal boskotea izan zituzten lagun txistulariek.

Zortzi izan ziren denera kontzertuan jotako piezak: motelak eta alaiagoak; herrikoiak eta konposatzaile famatuek idatzitakoak.

Azken hauen artean, Alfonso Ugarte antzuolarrak idatzitako bi pieza jo zituzten, emanaldia hasteko aukeratu zituztenak. Momentu hunkigarrikerik ere bizi izan zen atzokoan: taldekoek lore sorta bat oparitu zioten Bittor Arbulu zuzendariari, euren esanetan, "taldea zuzentzeko duen pazientziagatik".

1977AZ GEROZTIK

Bittor Arbulu bera pozik zegoen kontzertuak emandakoarekin, baita herritarren erantzunarekin ere. Hamabost urterekin hasi zen bera txistua jotzen, eta duela hogeit hamar urte egin zen zuzendariaren kargu.

1977 inguruan sortu zen taldea, neurri handi baten Jose Inazio Jauregiren ekimenez. Bera izan zen hastapenetan txistu irakaslea. Garai haietako emanaldi garrantzitsuenetakoa, Bergaran ikurrinaren legalizazioan txistua jo zutenekoa izan zen. Urte asko igaro diren arren, taldeak sendoa jarraitzen duela adierazi digu Arbuluk: "Batzuk joan, besteak etorri, taldea beti egon izan da. Azken urtetan, baina, talde egonkorra osatzea lortu dugu".

Hogeit hamar dira denera taldeko kideak, hamazazpi txistulari eta hiru perkusioa jotzen. Gazteenak duela hiru urte batu ziren, eta nahiko lukete jende berri gehiago egotea. "Lehen geuk erakusten genuen txistua, baina konpromisoen eta Bergarako Musika eskolan ere txistua jotzen irakasten hastearen ondorioz, uzten joan ginen" azaldu digu.

EMAKUMEAK NAGUSI

Deigarria suerta daiteke taldean dagoen emakume kopurua, hamahiru denera. "Gaur egun, txistularien artean bakarrik ez,

beste hainbat kultura esparrutan ere emakumeak gero eta gehiago dira; kulturak aurrera egiten badu, eurei esker izango da! Badi-rudi mutilei buruaren kanpoko aldea bakarrik erabiltzea gustatzen zaiela, baloia jotzeko-eta..." aipatzen du irribarrez.

Urteroko kontzertu nagusiaz gain, txistulariak domekero irte-ten dira kaleak alaitzera. Horre-

tarako, lauko taldetan daude banatuta, eta egutegi bat jarraitzen dute: domeka bakoitzean talde bat. Arbuluren esanetan, gazteek akaso ez hainbeste, baina gainerakoan jendeak estimatzen du txistularien lana. Sasoiaren ikusten du txistua Antzuolan: "Taldea honekin behintzat bai! Eurei ere esana diet gainera: hemen ez dago desapuntatzerik!".

ARRASATE MUSIKALEKO TXISTULARI BANDA

Arrasateko Musikaleko txistulariek emanaldia eskaini zuten zapatuan Kulturaten

Lehenengo gaztetxoek hainbat pieza jo zituzten banaka, binaka eta taldeka; gero etorri zen nagusien txanda, besteak beste, Guridiren *Alborada* joaz. Taldekoek esan zuten, beste kontzertu batzuetan baino jende gutxiago gerturatu zen zapatuan Kulturatera.

Egun, bederatzirako heldu eta zortzi gaztetxo daude Arrasate Musikaleko txistularien taldean. Urtean, hiruzpalau haur hurbiltzen dira txistua ikastera eta Igor Herrarte taldekidearen esanetan, nahiko osasuntsu dago txistua Arrasaten. Urtean hiru kontzertu ematen dituzte eta herriko beste hainbat jaitan ere jotzen dute. Herrarteren ustez, jendeak ematen dio balioa txistularien lanari: "Emanaldiaren ostean ez dizute ezer esango, baina jairen baten txistulariak falta badira, hurrengo egunean jende askok esaten du zerbait falta izan zela, nabari zela txistulariak ez geundela". Aipatzekoa da, baita ere, Arrasate Musikaleko txistulari nagusi guztiak Arrasateko Txistulari Taldekoak ere badirela aldi berean.

DATUA

20

TXISTULARI TALDEKO KIDEAK

Egun, hogeit hamar kide ditu Antzuolako Txistularien Taldeak. Horietatik hamazazpi txistulariak dira eta beste hiruk perkusioa jotzen dute. Gehiengo emakumeek osatzen dute; denera hamahiru dira.

MUSIKA > ANARI

Musika eta hitzak barruan sentiarazi

Anari *hustu* egiten da kontzertuoro.

JOSETXO ARANTZABAL

NON: Arrasateko Amaia antzokian.**EGUNA:** Zapatua, martxoak 6.**ZENBAT JENDE:** 300 lagun inguru.**IRAUPENA:** Ordu eta erdi.

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Batzuek esaten zuten Azkoitiko abeslari eta musikari hau diamante gordin bat zela (nahiz eta beste askok ezin dute bere musika jasan), eta denborak erakutsi du arrazoi guztia zutela. Diskoz disko hazten joan den musikaria da bera; eta, bestalde, ezin da ukatu alboan dituen musikariek ere zerikusia dutela kantuen soinu egokia lortu eta emaitza borobiltzerako orduan, itzelak dira-eta.

Anarik berak aspalditik esan ohi du entzuleen aurrean aurkezterako orduan, "Anari gara". Eta beste zatiak honako hauek dira: Drake (Bap!, Inoreneroni) baxu jotzailea; Mikel (Bap!, Inoreneroni, Negu Gorriak) bateria muntroa eta Borja (Purr, Hotel, Inoreneroni) gitarra itzela.

Zoritxarrez, Arrasaten, kale egin zuen Amaia Arroitauregi eibartarrak, egun eta ordu berean Bergarako Zabalotegi aretoan bere alter ego Mursego-rekin

txeloa jo behar zuelako. Modu berean, Anariren zale askok ere gustura entzungo lukete Mursego, baina ezinezkoa zen aldi berean bietan egotea.

GERO ETA ZALE GEHIAGO

Bagenekien Amaia antzokian jende asko batuko zela, aurreneko lerroetan esandako moduan, gero eta zailagoa delako haren talentuari bizkarra ematea. Konposatzaile oso ona da, hitzak are eta hobeak; eta lortzen duen soinua itzela.

Gabonetan kaleratu zuen *Irla izan* diskoa izan zen emanaldia-aren muina eta lan honek daukan intentsitatearekin jokatu zuten erabat.

Bidea eta denbora pieza eder eta pausatua; intentsitate handia eta sonoritate berezia daukan *Zuhaitzena*; Anariren berezko marka daukan *Zure ertza* (azkoitiarraren ohiko tenpo bereziarekin, giroa ia pintzekin helduta, apurtzeko mugan); Ruper Ordorikaren kantuen antzeko giroa lortzen duen *Harriak* melodikoa; garapen itzela daukan eta post-rockean murgiltzen den *Isla* ikaragarria; *Ihia*, Anariren kantutegian inoiz entzun dudana kan-

tu rockeroena, Neil Youngen ari- ma ere baduena; eta pieza ia akustikotik pieza orkestral eta buka- era noisya daukan *Amua*, zeharo harrapatu eta jarlekuetan itsatsita utzi gintuena.

'ZEBRA'-KO ALTXORRAK ERE

Horrez gain, baina, interpretatu zituzten, batez ere, musikari handi-agoa bihurtu zuen *Zebra* lan aurrekariko perla batzuk ere: hala nola, *Naufragoak*, *Aingura hegodunak*, *Zebra* eta kontzertuei bukaera emateko erabiltzen duten *Gu* pieza eder bezain itsas- korra.

LABOARI ETA GURI OPARIA

Aipatutako gauean, euren soinu teknikari Karlos Txap Osinagak ez zuen ohitura duen moduan azken pieza hori eurekin abestu, baina Anarik (eta taldeak) kantu horren bukaera Mikel Laboaren *Antzinako bihotz* abestiarekin lotu zuen, eta entzule asko eta asko hunkitu egin zituzten.

Musikari itzelak, poesia landua eta, artificio barik, gertuko bihotzak eta arimak ukitzen dakiena; eta gutxitik gehiagora doazen pieza intentsu bezain zirraragarriak. Itzela!

MUSIKA > NEVER SURRENDER

Estudiotik agertokira jauzi eta... 'Berriro hasi'!

NON: Arrasateko gaztetxean.**EGUNA:** Zapatua, martxoak 6.**ZENBAT JENDE:** 450 lagun inguru.**IRAUPENA:** Ordu eta erdi.

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Never Surrenderren *11 istorio*, *bROnCKa ta gau ero* disko berri-ko zazpigarren kantuak *Berriro hasi* du izenburu, eta talde arrasatearrak bizi duen unearren isla

dela esan daiteke. Izan ere, estu- dioko lan mardularen ostean, berriro hasi da taldea zuzeneko- ak ematen. Eta nola, gainera. Arrasateko gaztetxea goraino beteta, laukote arrasatearrak zuzeneko

bikaina eskaini zion gero eta leia- lagoa duen ikuslegoari. Sei hila- beteko etenaldiaren ondoren, jarraitzaileak desatzen zeuden taldea agertoki gainean ikusteko, eta taldeak ez zuen hutsik egin.

Egun berezia izan zen, Joseba Igle- sias falta zelako. Hala ere, ondo zaindutako zuzeneko bortitza eskaini zion Never Surrenderrek gazte arrasatearrari. Anti-flag tal- dearen *Turncoat* kantua bereziki eskaini zioten Iglesiasi, haren tal- de gustukoena zen-eta.

GERTUTASUN ABSOLUTUA

Ordu eta erdi inguru iraun zuen emanaldian, kantu zaharrak eta berriak tartekatuta zituzten. Musi- ka talde batek disko berria auz- kezen duenean kantu berrietan ikuslegoa adi egon ohi da, berriak zaizkion doinuak asimilatze- ko. Zapatuan, baina, kantu guztietan ez zen mugimendurik falta izan, aurrealdean batez ere. Horrek erakusten du lau egunetan –mar- titzenean jarri zen salmentan– diskoa asko zabaldu dela.

Bestalde, aipatzekoa da talde- kideek agertoki gainean izan zuten jarrera. Andoni Inurritegi *Pottoko*-k behin eta berriz uzten zien mikrofonoa erotuta zeuden lehen ilarako zaleei, euren ekar- pen egin zezaten. Zaleekiko ger- tutasuna baita Never Surrenderren bereizgarrietako bat, eta zapatuan sekula baino gehiago igarri zen.

Emanaldia, nola ez, diskoan ezkatatuta –diskoa amaitu eta segundu batzuetara agertzen da- dagoen *11 istorio*, *bROnCKa ta gau ero* abestiarekin amaitu zen. Ion Ugarteren txirula lagun, zuzeneko borobilari amaiera eman zitzaion. Gogotsu eta haize fres- koz itzuli da Never Surrender.



Gogotsu eta haize freskoz itzuli da Never Surrender; argi geratu zen zapatuko emanaldian.

JOSETXO ARANTZABAL

Abantailaz
betetako kluba!

Goiena
kluba

300 euroko sariaren irabazlea Patxi Cabo Fernandez Zorionak!



Patxi Cabo saria jasotzen Mireia Larrañaga Goienako publizitate saileko arduradunaren eskutik.

Nola izan zenuen zozketaren berri?

Goiena Klubeko txartelarekin batera eskutitz bat jaso nuen, han agertzen zen zozketari buruzko informazioa. Horrez gain, *Asteleheneko Goienkaria*-n ere ikusi nuen iragarkia.

Zer egingo duzu irabazitako diruarekin?

Puntuan, bigarren semea izan dugu eta ondo etorriko zaigu diru hori gastuei aurre egiteko.

Goiena Klubak hainbat abantaila eskaintzen ditu, berriena Goiena txartela da. Zer iruditzen zaizkizu bertan agertzen diren deskontuak?

Deskontuak oso ondo daudela iruditzen zait. Gaur egungo egoera kontuan hartuta, deskontuak oso interesgarriak direla iruditzen zait.

Zer nahiko zenuke Goiena Klubak eskaintzea?

Oso gustuko dut argazkigintza eta nahiko nuke ikastaro bat antolatzea.

Izan duzu deskontuez disfrutatze-ko aukera?

Oraindik ez dut aukerarik izan deskontuez disfrutatze-ko, baina pentsatua dut, adibidez, umearekin Aquariumera joatea.

GOIENA KLUBA | Telefonoa: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com





Patxi Ormazabal idazkaria eta Leire Uriarte lehendakariordea ekitaldiaren une baten.

JOSETXO ARANTZABAL



Oreka Tx taldeko txalapartariak Espaloiko agertokian.

J.A.

LANKIDETZA > GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEAK

Herri artekotasuna, konpromisoa eta zirrarra, Mundukideren urtemugan

Mundukide izan dena eta gaur egun dena gogoratu zuten testigantza eta bideoekin

Joxe Mari Sarasua zenari omenaldia egin zioten eta fundazioaren helburuak berretsi zituzten

IKER BARANDIARAN > ELGETA

Mundukide fundazioak 10 urte bete ditu eta hori ospatzeko eta sorreran finkatutako helburuak berresteko ospakizuna egin

zuten. Are gehiago, orain dela hilabete eguraldiak ekitaldiak oztotatzeko arriskuaren aurrean, data atzeratu egin zuten; eta egubakoitzekoa arrakastatsua

izan zen oso. Ekitaldia hunkigarria izan zen; eta gaueko kontzertua jendetsua eta distiratsua.

ORDEZKARIEN HITZAK

Iluntzeko ekitaldian fundazioko hainbat ordezkari hitza hartu zuten, Mundukiden esku hartzen duten enpresa eta erakunde, langile zein boluntarioak ordezkatzuz. Gainera, Marrupan (Mozambike) eta Brasilen lanean dauden kideek ere mezuak helarazi zituzten han batutakoei.

OMENALDIA

Horrez gain, Mundukideren 10 urteak batzen dituen ikus-entzunezkoa ere eman zuten: sortzaileak, kooperanteak eta proiektuak egiten dabilen herrialdetako bizilagunak izan ziren protagonista. Baita, jakina, duela gutxi zendu zen Joxe Mari Sarasua. Haren alde hitzak izan zituzten antolatzaileek: "Joxe Mari zure ametsak, gureak ere badirenak, errealitate bihurtzeko lanean jarraituko dugu".

HERRI ARTEKO KONTZERTUA

Bukatzean, Oreka Tx taldeak *Nomadak Tx* ikus-entzunezkoan oinarritutako kontzertua egin zuten.

Perkusioa, kontrabaxua, gitara, saxoa eta alboka lagun zituztela eta ikus-entzunezkoaren laguntzarekin, bi txalapartariak herri arteko bidai luze baten gidari izan genituen. Ordu eta erdian ia 300 lagunek eurekin egin zuten bidaia. Urteurrenerako bukaera borobila!



ARKUPE

21 urte bete dituen literatur lehiaketako sari banaketa egin zuten Loramendik

Loramendi euskara elkartearen literatura lehiaketaren 21. edizioako sari banaketa egin zuten egubakoitzean. 8 eta 16 urte arteko gaztetxoei zuzendutako lehiaketan 331 lan jaso dituzte aurten; LH-en, 282 lan eta DBH-en, berriz, 49 lan. Antolatzaileek balorazio "oso ona" egin dute, urtez urte parte-hartzaile gehiago dituzte-eta. Aurten berrikuntza izan da esketxen atala. Sei ikus-entzunezko jaso dituzte, batzuk akziozkoak eta beste batzuk dokumental erara. Irudian, saria jaso zuten etorkizuneko idazleak, Arkupen.

ANTZERKIA > KOMEDIA


'Cruzadas cotidianas', algarak Zabalotegin

JOKIN BEREZIARTUA > BERGARA

La Tropera antzerki taldearen eskutik *Cruzadas cotidianas* antzezlanak ikusteko aukera izan zen egubakoitzean Zabalotegi aretoan. Ez zen jende asko gerturatu; 50 lagun inguru. Antzezlanaz gozatzeko aukera izan zutenek, baina, ez zuten aspertereko astirik izan.

ERREALITATEA ALGARA ITURRI

Ohiko bizimodua daroaten lau emakumeren bizitza ekarri zuten Cristina Castillo antzerkigile beteranoak Zabalotegira. Errealitatea bera algara iturri



Cristina Castillo obrako une baten. J.A.

hartuta eta egun pil-pilean dauden gaiak jorrotuz –nagusien mendekotasuna eta inmigrazioa, besteak beste–, ikusleek gustura egin zuten barre. *Cruzadas cotidianas* komedia bada ere, ez zaio aldarrikapen punturik falta: lau emakumeek, egoera erabat ezberdinetan, bizimodu hobeko bat eskatu zuten.

GURE TALDEAK

Desprezio



Ezkerretik eskuinera, Manzana, Porru eta Izu.

DESPREZIO

"Erritmoek eta gure mezuek ematen diete indarra kantuei"

Desprezio arrasatearrek diskoa kaleratu berri dute, 15 kanturekin; laster jarriko dute salgai gaztetxeetan eta Arrasateko tabernetan

Akrata taldeko Karlos eta 'Eu'-rekin grabatu dute diskoa, eta gustura daude emaitzarekin: soinuarekin eta grabatutako kantuen letrekin

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Porru-k (bateria-jotzailea), **Izu-k** (baxu-jotzailea) eta **Manzana-k** (gitarra-jotzailea eta ahotsa) osatzen dute Desprezio taldea. 2003an sortu zuten taldea lau neskek. 2005ean aldaketak egin zituzten taldean: orain, bi neskek eta mutil batek osatzen dute.

Diskoa atera duzue; pozik zaude emaitzarekin?

Nahiko soinu ona gelditu da azkenean. Zerbait aldatuko genuke, baina gustura gaude. Musika estilo ezberdinez osatuta dago diskoa, ez dago estilo finkorik. Guztira, 15 kantu grabatu ditugu. Hasi ginenean idatzitako kantuak daude eta oraingoak ere bai. Arlo horretan, behintzat, dezentetobetu dugula uste dugu.

Diskoa non eros daiteke?

Gaztetxe gehienetan salgai jartzeko asmoa dugu. Era berean, Arrasateko tabernetan jarriko dugu. Bestalde, Interneten, www.myspace.com/despreziodesprezio webgunetik doan deskargadateke. Gure helburua jendeak entzutea eta kontzertuak lortzea da, ez dirua ateratzea. Hiru eurotan salduko ditugu kopiak.

1980ko hamarkadako taldeak erreferentzia modura hartzen dituzue ala gaur egungoak baita ere?

Hasi ginenean idatzitako kantuak 1980ko hamarkadako taldeetan inspiratuta idatzi genituen; besteak beste, Eskorbuto, Cicatriz... Baina, denborarekin, gure erreferentziak zabaldu ditugu

eta egungo musika taldeak entzuten ditugu. Ezinbestean berriro egin behar dugu. Gainera, gure artean badaude talde oso onak ezagunak ez direnak eta oso gustuko ditugunak: besteak beste, Nakrotikos, Rombos Negros...

Taldekideok ere gustu ezberdinak ditugu: rock-and-rollera, after-punka, rock zaharra...

Ez da ohikoa neskek agertokian ikustea, eta, gainera, musika zuzenean egitea. Nolatan?

Gure inguruko taldeetan ez da arraroa neskek aurkitzea, neskek eta mutilak, neskek bakarrik, mutilak... Gogoia eta amorrua izanez gero, neska edo mutil izateak ez dauka inolako garrantzirik.

Zergatik aukeratu zenuten Desprezio izena?

Taldeari izena jarri genionean horixe zen gure sentipen nagusia, mespretxua: inguruko egoerari, jendeari... Oso erraza izango litzateke esatea polizia, politikariak edo gizartea mespretxatzen dugula... Baina sentipen hori sorrarazten digute pertsona zehatz batzuek: besteak beste, gehiegi berba egiten dutenek eta jakin barik hitz egiten dutenak.



Punka ez da sofistikazioa, gehiago da

Badira hainbat urte Desprezio lehenengo aldiz entzun nuenetik eta orduan nire arreta deitu zuten lau neska zirelako. Gaur egun bi neskek jarraitzen dute, baina soinua garatu dela igartzen da.

Ez doaz, ez, sofistikazioaren bila, punkak ez dauka eta hori ardatz, baina disko honetako 15 kantuetan Ultimo Resorterren trazako punk-hardcorea, melodikoa, siniestro edo after-punka eta rock-and-rollera, besteak beste. Eta hitzak, zuzen-zuzenak.

Iker Barandiaran

Zaila izan zen taldea osatzea?

Zaila ez, baina gure artean gorabeherak izan ditugu. Hasi-ran, lau neska ginen taldean, baina arrazoi pertsonalak zirela eta bik taldea utzi zuten. Geratu ginenok oso garbi genuen musika egiten jarraitu nahi genuela, eta Izu sartu zen taldean. Orain, oso gustura gaude eta egiten ditugun abestietan nahi duguna adierazten dugu.

Zergatik sortu zenuten taldea?

Oso gustuko dugu musika, eta guretzat sentimenduak adierazteko modu bat da. Musikarekin deskonektatu egiten dugu eta gure bizitzetan ezinbestekoa da. Oso dibertigarria da musika egitea, eta, gainera, jendeari gure iritzia ezagutaraztea.

Letrak eta mezuek inportanteak dira zuentzako?

Seguruenik, letra kantuaren parte garrantzitsuenetarikoa da. Soinu eta erritmoez gain, mezuek eta pentsamenduek ere ematen diete indarra abesti bati. Letra batek hunkitu egin zaitzake. Musika ez da bakarrik soinu polita sortzea. Sentimenduak eta pentsamenduak adierazten jakin behar izaten dugu.

iragarkilaburrak.com

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Casalarreina (Errioxa). Pisu salgai Errioxan, Casalarreinan. 20 m²-ko txokoarekin. Telefonoa: 615-78 98 59

Abadiño. Etxebizitza salgai Muntzaratz auzoan. 3 logela, egongela handia, 2 komun, sukaldia, trasteleku txiki bi etxean eta ganbara. Berriztatua. Altxariek, nahiz izanez gero. Lokal komertziala aukeran (auto birezkatu lekua). Telefonoa: 667 88 23 38

Antzuola. Sagasti auzoan 90 metro koadroko etxebizitza salgai edo errentan. Hiru logela, bainugela, bi balkoi, sukaldia, egongela eta despentsa. Igogailu eta garaje itxiarekin. Jantzita. 687 11 07 21 edo 617 00 37 30

Aretxabaleta. 72 metroko etxebizitza salgai erdigunean. Hiru logela, egongela, sukaldia eta komun. Trastelekuarekin. Prezio interesgarria. 659-64 67 38

Aretxabaleta. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. 96 metro koadro, hiru logela, bi komun, terraza, trasteleku eta garajearekin. 276.000 euro. 649 25 23 51

Arrasate. Zarugalde kalean 89 metro koadroko etxebizitza salgai, 24 metro koadroko garajearekin. Hiru logela, sukaldia, egongela eta bi komun. 943-77 13 91

Azpeitia. Azpeitiako Salbe auzoan. Aukerako pisua. 37 milioi. Negoziagarriak. Berogailua gas bitartez. 3 logela bikoitz (bere armarioekin), sukaldia (bere altxari eta elektrogailuekin), sala eta komun. 94 m². Gela guztiak kanpokaldara. Logela nagusia eta beste bat altxariek hornituta daude. Igogailu jarri berria. Pisu eguzkitsua, bsitak bidigorri aldera aldera. PVCko lehiok, harotz lanak haritzean. 656-31 60 31

Berriatua. Etxebizitza salgai edo alokatzen Berriatuan. 72 metro koadro. Bi logela, komun eta sukaldia-egongela. Berriz-

tua eta guztiz jantzia hartzeko aukera. Salmenta prezioa, 190.000 euro. 94-616 64 19 edo 946-13 90 56.

Berriatu. Etxebizitza salgai edo alokatzen Berriatuan. 72 metro karratu. Bi logela, komun eta sukaldia-egongela. Berriztatua eta guztiz jantzia hartzeko aukera. Salmenta prezioa, 190.000 euro. Deitu 94-616 64 19 edo 94-613 90 56 telefonora.

Durango. Pisu bat salgai Madalena auzoan. Guztiz berriztatua, duela 5 urte. 3 logela, komun, sukaldia eta egongela. Oso eguzkitsua. Guztiz jantzia. Telefonoa: 655-70 96 59

Elorrio. Pisu ederra salgai. Telefonoa: 639-02 05 81

Elorrio. Pisu eder bat salgai. Auzoa etorbidean. Telefonoa: 639-02 05 81

Etxarri Aranatz. Familiabakarra salgai Etxarri Aranatzko Kalamurtxel kaleko 20. zenbakian. Praktikan berria eta jantzitakoa. Hiru logela, bi komun, sukaldia eta egongela. Bi balkoiatik mendia ikusten da. Autoa sartzeko bajera eta lorategia. Prezio adosteko. Deitu 645-73 50 59 telefonora (Maite).

Etxarri Aranatz. Pisu salgai Etxarri Aranatz, bigarren eskukoa. Hiru argi edo ikuspegiarekin, lehen pisua da. Berogailua eta aluminiozko leiho bikoitzak ditu, eta guztiz jantzia dago. Hiru logela, sukaldia, sala, komun, despentsa eta bajera trasteleku. Prezio adosteko. Deitu 636-15 85 35 telefonora.

Etxarri Aranatz. Primerako aukera: familia bakarreko eraikin berria salgai Etxarri Aranatz. 172 m² + 60 m²-ko lorategia. 3 logela, 3 komun eta 2 autotendak garajea. 225.000 euro. Telefonoa: 679-30 84 43.

Etxarri Aranatz. Etxarri Aranatzko Arkuetabide kalean, lehen zekerra. 98 m² eta oso orientazio ona. Deitu 696-19 43 17 edo 626-70 30 93 telefono zenbakietara.

Iruztzun. Eraberritutako pisua salgai Iruztzun. 3 logela, 2 balkoi, sukaldia jantzia. Prezioa 150.000 euro. 699-02 03 63.

Eguneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldatetarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

943 25 05 05

sailkatuak@goiena.com
<http://www.goiena.net/sailkatuak>

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINUTAKO ATALAK:
ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU/ALOKATU.

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira. GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Lazkao. Lazkao, Jose Lasa kalea. 80m². 3 logela, 2 bainu gela, egongela, sukaldia, balkoia, garajea eta igogailua. 55.500.000 pezeta. 943- 08 51 06 eta 648-05 56 88. Posta: txaxi20@hotmail.com.

Mallabia. Mallabia. Baserrisalgai toki polit batean 20.000 metroko lur zatiarekin. Telefonoa: 655-70 26 47

Oñati. 80 metro koadroko etxebizitza salgai plazatik 100 metro-ra. Sukaldia, egongela, lau logela eta komun. 240.000 euro. 687 32 99 57 edo 636 32 62 97

Oñati. 67 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Bi logela, komun, jangela-egongela eta sukaldia guztiz hornituta. 264.000 euro. 35 metro koadroko garaje eta trasteleku, aukerakoak, 66.000 euro. 659 72 06 64

Oñati. 85 metro koadroko etxebizitza salgai Obispo Otadui 13an. Hiru logela, sukaldia, egongela, komun, trasteleku eta 49 metro koadroko garajea. 659 05 11 57 edo 630 52 17 89

Obandino. Pisu salgai. Ikuspegi zoragarria Anboto aldera. 90m² erabilgarri. 4 logela,

egongela, sukaldia, komun, trasteleku eta balkoia. Tasa-trasteko prezioan. Deitu 675-90 52 27 telefonora.

Zaldibar. Pisu salgai 75m². 3 gela, egongela eta ganbara. Prezioa: 170.000 euro. Deitu 655-73 97 92 zenbakira.

Zizurkil. Pisu polit eta argitsua, bista ederrak sukaldia, komun, saloia, 2 gela eta estudioa. Trasteroarekin (15m²) eskaileren bidez komunikatua. 17m²-ko terraza. Egoera oso ona. Igogailua. Gas naturala. Meretz du ikustea.

102. EROSI

Debagoiena. Etxebizitza erosi-ko genuke Aretxabaleta, Eskoriatza edo Arrasate. Hiru logela, edukitzea ezinbestekoa, baita igogailua ere. 200.000 euroaraino. Partikularrekin bakarrik hitz egingo dugu. Interes izanez gero deitu 663-72 78 23 telefonora.

Altsasu. Apartamentu edo pisu txiki baten bila nabil Altsasu edo inguruetan. Interesatuek deitu 660-33 23 63 telefonora eta Oihanarengatik galdetu.

103. ERRENTAN EMAN

Altsasu. Erdigunean dagoen apartamentua alokatzen da Altsasun. Hots egin hurrengo telefonoetara: 660-87 75 50 edo 666-78 50 45.

Aretxabaleta. Etxebizitza berria ematen da errentan erdigunean. 636-73 54 94

Aretxabaleta. Etxebizitza ematen da errentan Iparragirre kalean. Hiru logela. 550 euro. 653 74 31 02

Aretxabaleta. Etxebizitza ematen da errentan. 651-70 79 96

Arrasate. Apartamentuak ematen dituzten errentan. Jantzita. Galdetu Igonetarik. 677-21 87 81

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan. Oso ondo kokatua. 659-44 86 79

Atxondo. Pisu alogakagai Atxondon. Telefonoa: 659-84 21 71

Benidorm. Etxebizitza ematen da errentan Levante hondartzako lehenengo ilaran. Bi logela eta aparkalekua. 630-41 84 65

Elorrio. Baserri bateko etxe berriztatua alogakagai. Estreinatze. 3 logela, egongela, sukaldia, jangela, komun eta atarrea. 150 m² solairu bakarrean. Telefonoa: 699-84 62 19

Oñati. Errekalden, etxebizitza ematen da errentan. Igogailua, 3 logela, 2 komun, sukaldia eta egongela. 649 05 17 20

Oñati. Etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, bi komun, egongela eta sukaldia. 645-71 98 84

Oñati. Olakua auzoan etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, sukaldia, bainugela eta egongela. Garajea aukeran. Deitu 665-72 87 89 zenbakira

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Deitu 615 79 27 56 telefonora.

Bergara. Etxebizitza bila nabil; gutxienez, bi logela izan behar-ko lituzke. Hori bai, hiru logelako bada, hobeto. Deitu 636 80 87 68 telefonora.

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Deitu 609 38 86 47 zenbakira.

Bergaran. Etxebizitza hartuko nuke errentan. 699 09 46 26.

Bergaran. Familia batek etxebizitza errentan hartuko luke. 650 62 12 94 edo 943 08 22 60.

105. ETXEAK OSATU

Abadiño. Pisu konpartitzeko pertsona behar da. Telefonoa: 653-01 72 24

Arrasate. Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Lau logela eta bi bainugela ditu. Langileak bizi dira. 653-71 44 57

Arrasate. Logela jantzia ematen da errentan, erdigunean. Internetarekin. Telebista, hozkailua eta igogailua. Egoera onean. 235 euro hilean. 606 74 42 37.

Bergara erdialdean bi gela ematen dira errentan. Bata txikia eta bestea handioxagoa. 943 03 62 00 edo 649 63 23 24.

Bergara Erdigunean etxebizitza osatzeko pertsona bila gabiltza. 610 31 02 61.

Bergaran etxebizitza osatzeko pertsona baten bila gabiltza. Bergarako erdialdean dago eta logelaren prezioa da 170 euro, bestelako gastuak barne egon barik. 696 02 68 30 edo 670 40 74 53.

Bergara Erdigunean etxebizitza osatzeko pertsona bila gabiltza. Bergarako erdialdean dago eta logelaren prezioa da 170 euro, bestelako gastuak barne egon barik. 696 02 68 30 edo 670 40 74 53.

Bergara Erdigunean etxebizitza osatzeko pertsona bila gabiltza. Bergarako erdialdean dago eta logelaren prezioa da 170 euro, bestelako gastuak barne egon barik. 696 02 68 30 edo 670 40 74 53.

Oñati. Logela ematen da errentan. 688 61 57 79.

Donostia. Donostian Amara auzoan gela bat alokatzen da neska batentzat pisu konpartitza batean. Berdin ikasle edo langile. Telefonoa: 943-65-16-92, hartu ezan mezu utzi

Durango. Gela bat alogakagai Durangon. Telefonoa: 630-76 18 28

Durango. Zonalde onean kokatutako pisua osatzeko pertsona behar da. Telefonoa: 695-78 09 44

Durango. Konpartitzeko pisu bila nabil Durango inguruan. Telefonoa: 691-35 40 31

Oñati. Oñati. Logela ematen da errentan. 688-61 57 79

Etxarri Aranatz. Etxarri Aranatz alokairuan bizitzeko logela edo pisu baten bila nabil. Interesatuek deitu 679-76 32 34 telefonora.

Zarautz. Zarautzen pisua konpartitza nahiko lukeen 32 urteko mutila naiz; hortaz, bai pisukide (neska zein mutil) eta bai pisu bila nabil. Interesaturik bazaude idatzi zarautz@euskalherria.org helbidera.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Aretxabaleta. 18 metro koadroko garaje itxia salgai. Telefonoa: 685 73 58 55.

Arrasate. Garaje itxia salgai Usatxe plazan. 686 02 56 56.

Durango. Garaje itxia salgai, Alde Zaharretik gertu. Telefonoa: 665-72 99 36

203. ERRENTAN EMAN

Donostia. Garajea alokairuan, Donostiako Gros auzoko San Ina-

zio elizaren eta hondartzaren artean. Harremanetarako deitu 670-26 02 51 telefono zenbakira.

Durango. Garaje plaza bat alokairuan Durangon azoka plazaren ondoan. Harremanetarako deitu 619-18 77 99 telefono zenbakira

Oñati. Garajea ematen da errentan Ugarkalde auzoan. Harremanetarako deitu 645-71 98 84 telefono zenbakira.

204. ERRENTAN HARTU

Durango. Garaje itxia alokatu nahi dugu J.M. Iparragirre kalearenginguruan. 653-01 88 29

